

ARRASATE PRESS


ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 28a / 624. zenbakia

DENDARIAK NORABIDE BILA



Jaurlaritzak egindako ikerketa batek Arrasateko saltokien egoera aztertzen du eta merkataritza indartzeko neurriak proposatzen ditu

ORAIN ETA HEMEN: SAN KRISTOBAL HILERRIA/8 • ZAHARRAK: SENDIAN PROGRAMA/17



ILUNTZEAN

Euskadiko pertsonaia ezagunak geurean



**Ikusiko
duzu!**

Eguenero,
21:15ean eta 23:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki

KALEINKESTA/ Tabernetan, pintxuek tapaute ala tapau barik?



ANGEL MARTÍNEZ
Jubilaue



JUAN ATIENZA
Jubilaue




IKER ELGEZABAL
Ikasle



ANA MARTÍN
Langillie



GARBIÑE GORRIA
Langillie



MARIBEL GARRO
Etxekoandrie

Tapaute, iñungo duda barik, gaiñera. Pintxuek tapaute badauz, askoz be higienikuague da. Tabernetan, keie, jentien hatsa... Neuk argi dauket pintxuek tapaute gure dittudala.

Pintxuek tapauta egon biherko leukie. Tapau barik dazen lekuetan ez daz bape ondo. Traguek ataraterakuen jausten dien tantakak, keie... Tapaute badauz askoz be hobeto.

Esango neuke pintxuek hobeto dauzela tapaute. Tabernetan erre egitten da, traguek jausten die... Bestalde, izan leike tapaute badauz jentiek pintxo gutxiago jatie.

Nik gurago dittut tapau barik. Oin arte holaxe ibilli gare, eta osasun kontuek zaindu egin biher badie, aurretik euki daixiela kontuen beste gauza batzuk: txapapote, adibidez.

Gurago dot pintxuek tapaute badauz, askoz be garbiñe da. Ez dot uste tapaute egotiarren jentiek pintxo gutxiago jango dittuenik. Pintxue gure dauenak berdin-berdin hartuko dau.

Nik dauzen moduen itxiko neuke, tapau barik. Gusto-ra hartzen dittut, baiñe ze taberna dan be kontuen eukitten dot. Pintxuek tapote kaltegarrixe da tabernarixendako.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK OINEZKOEN ETA AUTOEN ONERAKO Joan den aspaldian San Andres auzoa hankaz gora dago, batez ere egiten dabiltzan konponketa eta berritze lanengatik. Horien artean, Super BM ondoko aparkalekuan arazoak egon dira. Orain dela gutxi, aparkalekuak ganoraz markatu/margotu dituzte eta aparkaleku horretara sartzeko noranzkoa hobeto arautu dute. Txaloak, auzotarren partetik.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN/8

KIROLA /11

KULTURA /14

Sexologia zerbitzua

Arrasateko sexologia zerbitzua handitu du Udalak. Langile eta ordu gehiago izango ditu orain.

TAU Baskonia Arrasaten

Datorren egubakoitzean, hilaren 4an, TAU Baskonia saskibalo taldea Arrasaten entrenatuko da.

'A cuestras con Murphy'

Domekan Vaiven antzerki taldeak *A cuestras con Murphy* ikuskizuna eskainiko du Amaia antzokian.

ASTEKODATUA

293

SALTOKI TXIKI EDO ERTAIN DAUDE ARRASATEN

Eusko Jaurlaritzak egin duen ikerketaren arabera, 293 saltoki ertain edo txiki daude herrian; 1991n baino %17,2 gutxiago, hain zuzen ere. Gehienak elikadura-rekin lotutakoak dira.

BESTEKESESANA

Gogoratzen dut irakasle xeble bat, emozio bereziaz hitz egiten zuen Aristoteles, Sokrates, Platon,

Kant eta Descartesi buruz (nahiz eta inork kasu putarik egin ez). Eta nik, galtzaundi atarrantea, hala ulertu nion irakasle hari: filosofoak tipo itzelak zirela, jakintsuak, interesgarriak... Despiste galanta, Andueza ttuntuna! Espainiar inperio sakrosantuan bederen gauzak ez direla horrela. Nando Sabater supra-filosofo espainiarrrak karrerila hartzen duen bakoitzean, adibidez, nik ez diot ezer ulertzen. Ahoa zabaltzen duen bakoitzean zarata-onomatopeia batzuk besterik ez dut entzuten. Sokrates finaren hitz dotoreak baino gehiago, zakur amorratuaren zaunkak gogorarazten dizkidate".

JON ANDUEZA
'EGUNERO'/03-03-20

HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



Agur (eta eutsi goiari)

Hau mundua hau! Espirituz makal samarrak garenok lur jota eta burumakur ibiltzeko motiborik aski badugu. Gerra-hotsak dira nagusi munduan. Lehendik gutxi bagenuen, tori gehiago! Irak bonbardatzen hasi berri-ekin diot nire azken zutabetxo honi idazteari. Argia izan orduko, auskalo zenbat hildako eta zenbat sarraski...

Gure mundutxora etorri, garai estuan bizi gara. Zorte txarrekoak gara euskaldunok. Nork aginduko zigun holako auzoak hartzea! Kontu larri asko ditugu (Batasunaren ilegalizazioa, esaterako, oso-oso larria da, gizartean eragin larr(i)egirik izan ez badu ere), baina hemen *Egunkaria*-ren aferaz jardungo dut. Gaur bertan 19 urteko gazte bati entzun diot *Egunkaria*-rekin gertatu dena euskaldunok urte askoan ez dugula ahaztuko. Eta hau ere esan du: euskaldunok dugun armarik eraginkorrena

euskara bera dela, euskaraz bixitza eta euskara ahalik eta gehien erabiltzea. Eta hori gazte bati entzutea pozgarria da benetan. Izan ere, hain gazte ez garenok hor ari gara aspaldian euskara dela-eta gazteak kritikatzan.

Eta egunkari berriaz zer?

"Nola ahaztu Jaurlaritzak izan zuen jokabide makurraz? Badirudi batzuk itxieraz baliatu nahi direla eskua sartzeko"

Badut beldur apur bat (eta apur bat baino gehiago ere bai). Ez dut esango duela 13 urteko beldur berbera denik. Orduan oso justifikatua zegoen: nola ahaztu Jaurlaritzak izan zuen jokabide makurraz? Baina orain ere badirudi batzuk itxieraz baliatu nahi direla eskua sartzeko. Duda egiten dut asmo onez ari diren. Nik lehengo *Euskaldunon Egunkaria* edo oso antzekoa gura dut. Hobe bada eta astelehenetan ere kaleratzen bada, askoz hobeto. Baina lehengo, eta lehengo langileek egina.

Ez dira, ez, garai onenak euskaldunontzat. Baina ezin atzera egin (*Egunkaria*, aurre-ra!). Eutsi goiari! (eta agur).

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 28
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ZAPATUA, 29
Irizar, Erguin 11. 943 79 12 39

DOMEKA, 30
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

ASTELEHENA, 31
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

MARTITZENA, 1
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09

EGUAZTENA, 2
Español, Araba etorb. 943 79 18 65

EGUENA, 3
Azkoaga, Ferrerías 5. 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

Arrasate
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monteiron. 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

YOGA ETA MASAJEA
Arrasateko Yoga elkarteak hastapeneko Yoga eta Masaje ikastaroak antolatu ditu. Masaje ikastaroa martxoaren 31n hasiko da eta Yoga ikastaroa, apirilaren 2an. Informazio zabalagoa gura baduzu, deitu 943 79 20 85 edo 943 79 66 98 telefonoetara.

IKUSKIZUNA IAMAIN
Gaur, egubakoitza, Oliver taldeak *100 años de perdón* ikuskizuna eskainiko du Iamai kafetegian. Gauerdian izango da.

ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN
Domekan, martxoaren 30ean, Vaiven antzerki taldeak *A cuestras con Murphy* ikuskizuna eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

'KUTXIDAZU BIDEA, IXABEL'
Apirilaren 6an, domeka, Gorringo taldeak *Kutxidazu bidea, Ixabel* lana eskainiko du Amaia Udal Antzokian.

TAILA IKASTAROA
ARTEK hasierako taila ikastaroa antolatu du. Apirilaren 7an hasiko da eta Erguinen emango dute. Izena eman, gaez, honako telefonoetako batera deituta: 943 79 77 57 Jose Mari edo 943 03 78 28 Imanol.

AEDrenAGENDA

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Egunkaria Aurrera herri batzordean parte hartu gura baduzu, jo AEDra. Martitzenetan, 19:30ean, herri batzordeko dirubilketa taldea batzen da. Egun berean, 20:00etan, harpidetza taldearen hitzordua izaten da. Eta harpidetza taldea ere badago.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Ludotekak Jostailu lantegia antolatu zuen

Zapatuetako auzoz auzoko programaz gain, ludotekak Jostailu lantegia antolatu zuen, herriko ikastetxeetako 6. mailako ikasleendako. Horrez gain, jostailu klinika ireki zuten, umeek jostailu zaharrak irudimenarekin senda edo konpon zitzaten. San Andres auzoan jarri zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Arrataria"

Erropan egindako urrutua, tartatada. —Alanbrian katiu ta arrataria ein jat ipurdixan.



HAUGIROA!

MINIMOA -1°C
Eguena, 20


MAXIMOA 24°C
Astelehena, 24

ASTEKO EURIA (l/m²) 0 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	21 °C	-1 °C	- l/m²
Eguena, 20	16 °C	-1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 21	18 °C	-1 °C	- l/m²
Zapatua, 22	19 °C	5 °C	- l/m²
Domeka, 23	22 °C	11 °C	- l/m²
Astelehena, 24	24 °C	6 °C	- l/m²
Martitzena, 25	22 °C	5 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Sexologia Zerbitzu berriaren aurkezpena

Arrasateko Udalak Sexologia Zerbitzua zabaldu zuela 6 urte badira ere, aurrerantzean Zirrida Kolektiboa izango da zerbitzuaren kudeaketaz arduratuko dena; aipatu taldeko Elena Jimenez izan da astean irratian bulegoaren etorkizuneko asmoak aurkezten. Asteburuko gainbegiratuan berreskuratuko dugu solasaldi hori. Horrez gain, Betizu taldeko abeslariak kontatutakoak eta garai bateko jolasen gainean izandako berba ere entzungo dituzue asteburuan.



Maitane Olabarrieta, itsas zientzia aditua

Maitane Olabarrieta arrasatearrak Itsas Zientzietako ikasketak egin ditu Kanariar Uharteetan. Egun Santanderren dihardu ikasketak amaitzen. Azkenaldian itsasotik datozen albisteak direla eta, erdi ahaztuta dugun *Prestige* ontziaren hondamendia aitzakia hartuta, Maitane Arrasate Irratira gonbidatu dugu. Azken gertakarien gainean ozeanografa legez duen iritziaz eta bere lanaz luze berba egingo dugu berekin, eguaztenean, 09:30ean.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
06:30-7:00-7:30 Eguneko agenda
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: elemerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR.

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien.

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest.

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak: Beñuzukoa, aspaldiko jolasak, Vaiven antzerki taldea, Sexologia zerbitzua...

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Iraken erasoen kontrako lanuztea

Martitzenean milaka langilek lanuztea egin zuten Euskal Herrian, Iraken kontrako erasoagatik protesta egiteko.

Arrasateko saltokiek atek itxi zituzten eguerdian, ordubetz, eta Udaleko langileek ere lanuztea egin zuten. Herriko Plazan bilkura egin zuten 200 lagun inguruk udaletxeko balkoietan jarritako bozgorailuei esker irakiarrek bizi duten egoera hurrerotik bizi izateko aukera izan zuten: sirena hotsa, bonbardaketak, hegazkin militarrek ateratzen duten zarata... Protesta zaratatsua izan zen, baina era berean eraginkorra.

Ander Rodríguez Iraketik bueltan

Ander Rodríguez 20 urteko arrasatearra Iraken egon da Brigada Euskal Herria taldearekin. Bidaia horretan Anderek Irakeko errealitatea gertutik bizi izateko aukera izan du.

Emozioz, tentsioz, pozez eta tristuraz betetako zazpi egun pasatu ditu Ander Rodríguez Iraken. Lehenengo hiru egunetan Bagdaden ibili ziren Brigada Euskal Herria taldekoak, ekitaldiak egin eta hainbat leku bisitatzen. Zazpi egunean erasoaren aurkako hainbat manifestaziotan hartu dute parte. Horrez gain, Euskal Herriarren elkartasun mezua zabaltzeko ekitaldiak egin dituzte.

Aralar taldeak zerrendak osatuko ditu

Aralar alderdi politikoa Arrasaterako zerrendak osatzen hasi da. Martitzenean batzarra egin zuten Arrasaten, zerrendak aurkeztu edo ez erabakitzeko, eta Aralarko taldekideek herrian zerrendak osatzea erabaki zuten.

Joxe Etxeberria Aralarko kideak Arrasate Irratiari esan zionez, Aralar taldeak apirilaren erdialderako osatu gura ditu zerrendak.



Gas-ihesa Fagor Elektronikan

Fagor Elektronikan gas-ihesa gertatu zen eguen arratsaldean (hilak 20). Ertzainek eta udaltzainek lantegi inguruko errepideak itxi zituzten. Gas-ihesa bi azidoren arteko nahasketak eragin zuen; nahasketak erreakzio kutsakorra sortu zuen. Errepideak arratsaldeko lauretan ireki zituzten.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Gertuago ere bada petroliorik


Egunotan Irakeko inbasioa da albiste. Ez da gutxiagorako. AEBetako gobernuak gura duena egiten du eta oraingotan -beti zerbait- Saddam Hussein diktadorea dela eta arma kimikoak dituen usteaz baliatu da. Ez dago munduan herrialderik AEBek eta Israelek beste arma industria garatu duenik. Baina horrek ez du axola. Horrez

gain, diktadoreak egon asko daude, baita diktadore moduan jokatzeko dutenak ere. Ez dago urrun joan beharrik. Azken finean, AEBek eta haien morroiek Irakeko petrolio bereganatu gura dute, eta hori lortzeko edozer egiteko prest daude.

Iraken egiten dabilzan sarraskia mozarrotu guran, AEBek kanpaina mediatikoa

abian jarri dute. CNNk eta bestelakoek soldadu amerikarrak Irakeko umeei txokolatea ematen erakutsi dituzte, eta atzetik AEBek Irakeko telebistaren egoitzetako bat bonbardatu dute. Qatarko Al-Jazzera telebista katearen kontrainformazioa ere gorroto dute ziurrenik. Hildakoak eta odola ezkutatu gura zuten, baina aldrebestu zaie. Eta Irakeko erresistentzia uste baina handiagoa da, beste Vietnam baten beldur dira.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

GERNIKA OINEZKOEN ZUMARDIKO ZUBIAK PISUARI ONDO EUSTEN DION ZIURTATZEKO FROGAK

Martitzenean Arrasate eta Sara gaineko errepide tartea itxi egin zuten. Goizeko zortzietan itxi zuten errepidea eta iluntzeko zortzietan ireki zuten. Hamabi ordu horietan langileek zubiak pisuari eusteko daukan gaitasuna neurtzeko frogak egin zituzten. Bizkaia etorbidean jarritako bi garabiri esker,

egunean barrena burdinazko habeak jarri zituzten zubi gainean, 50 tona guztira. Zubiko lanak amaitzen direnean Gernika Oinezkoen Zumardia inauguratzea baino ez da geratuko. Herriarrek gogoz hartuko dute Arrasateko pasealeku berria, asfaltu amaitzekoa zen-eta. /XABIER URZELAI

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

AGR
García Ripu
ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



HIRIGINTZA/ Eusko Jaurlaritzak Arrasateko merkataritza biziberritzeko plana egin du

Herriko merkataritzaren diagnostikoa eta etorkizunerako proposamenak egin dituzte

UBANE MADERA

Eusko Jaurlaritzak Arrasateko merkataritza biziberritzeko plan berezia egin du. Plan horretan, batetik, Arrasateko saltokien egoera aztertu dute ikerlariek (diagnostikoa egin dute). Eta bestetik, diagnostikoan ikusitako ahuleziei aurre egiteko eta Arrasateko merkataritza biziberritzeko ekintzen programa proposatu dute. Udalari aurkeztu diote plana.

Azken urteotan, merkataritzan aldaketa dezente izan dira. Batez ere, erosteko eta kontsumitzeko ohitura berriak sortu direlako. Eta, denda edo saltoki txikietan modu negatiboan igarri dira aldaketa horiek. Hala uste du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko merkataritzaren egoerari dagokionez.

Horren aurrean denda txikiak estrategia berriak garatu beharko lituzketela uste du Jaurlaritzak; eta, era berean, tokian tokiko administrazioak herriko denda txikien eta herriaren kanpo aldeko superfizien handien arteko zelanbaiteko oreka lortzen ahalagindu beharko liratekeela.

Hori guztiori oinarri moduan hartuta, Arrasateko merkataritza indarberritzeko egitasmoa egin du Eusko Jaurlaritzak, eta Arrasateko Udalari aurkeztu berri dio.

Ikerketa egiteko orduan, saltoki kopurua, saltokien egoera, arrasatearren erosteko ohiturak, herriaren beraren egoera eta etorkizuneko planak aztertu dituzte. Baita, herriko merkataritza biziberritzeko egin beharko liratekeen ekimenak ere.

ARRASATEKO EGOERA

Eusko Jaurlaritzaren ikerketaren arabera, guztira, 293 saltoki ertain edo txiki daude Arrasaten. 1991n baino %17,2 gutxiago. Saltokien artean, gehienak elikadurarekin lotutakoak dira (okindegia, harategiak, arrandegiak...); bigarren tokian jantziekin lotutako saltokiak daude (oihal dendak, zapata dendak...); altzarien eta etxerako gauzen dendak datoz hurrengo; eta drogeriak, lurrindegiak, farmaziak eta antzerakoak gero.

Denda edo saltoki gehienak alde zaharrean, Ferixalekuan, Zarugalden eta Grupo San Juanen inguruan daude. Aldiz, Musakolan, Santa Marinan, Santa Teresan, San Andresen, San Josepen, Urribarrin, Urriben eta Erguinen daude saltoki gutxien.

Era berean, esan beharra dago batez beste Arrasaten denden %65,4 ohikoak baino txikiagoak direla (80 m² baino gutxiago).

Dendetan egin dituzten berrikuntzei eta inbertsioei begiratuz gero, Eusko Jaurlaritzaren iker-

ketak ondorioztatzen du Arrasateko saltokiak, Gipuzkoako batez beste bakoek baino gutxiago berri direla.

Horren parean, esaten du Arrasateko merkataria eskarmentu handikoa dela. Batez beste, 10 urte daramatza lanean, hortaz, ondo dakizki bere ogibidearen nondik norakoak. Horrez gainera, ikerketak dio, baita ere, Arrasateko dendarien formazio maila Gipuzkoako batez beste bakoaren gainetik dagoela. Baina, era berean, herriko zenbait saltokitan ematen diren zerbitzuen artean, telefono bidezko erosketak eta erosketak etxera eramateko zerbitzu falta ere ikusten du.

AUZOAK

Arrasateko auzoen egoera aipatzekoa litzateke. Arrasateren erdialdetik urrutirago dauden auzoetako bizilagunei inkesta egin diete ikerlariek. Eta, emaitzek erakutsi dute auzotarren ustez, gabezia dezente handia dagoela herriko zenbait auzotan.

Lehen aipatu dugun moduan, Musakolan, Santa Marinan, Santa Teresan, San Andresen, San Josepen, Urribarrin, Urriben eta Erguinen daude saltoki gutxien. Eta, auzotarrek ondo asko igaritzen dute hori. Musakola/San Juan inguruan arrandegiak eta supermerkatu moduko dendak igaritzen dituzte faltan. San Andres/San Josepen fruta-dendak, harategiak eta okindegia. Eta, Uribarri/Urbe/Erguinen supermerkatuak eta fruta-dendak, batez ere.


Alde zaharrera etorri gero, auzotarren %17,4ak uste du dagoen eskaintza gain, saltoki gehiago egon beharko liratekeela, batez ere, supermerkatu modukoak.

Etorkizun gaitza

Merkataritzarekin zerikusia duen plan baten aurrean, jakina, merkataria eurak dira interes handiena dutenak. Hori dela-eta, Arrasateko erdigunean lan egiten duten dendari batzuegana jo dugu, iritzia bila.

Argi utzi gura izan dute euren ustez herri bateko merkataritza indartzea herriaren beraren onerako zerbait dela; herria biziberritu egiten duelako. Bestalde, argi ikusten dute azken urteotan sortu diren merkataritza gune handiek erosle asko eramane dituztela. Baina, horren parean diote eurak gai direla horrelakoei aurre egiteko. Beti ere, merkataritza gune handiek zein txikiak baldintza berak badituzte. Eta, gaur egun, hori ez dela horrela diote. Gune handiek eurek baino erraztasun handiagoak dituztela diote (batez ere, saltokiak ezartzeko baldintzak direla-eta).

Horrez gainera, dendetan obrak egiteko zailtasunak dituztela ere esan digute. Batez



Irudiotakoak moduko ekimenak egitea proposatzen du Jaurlaritzak: lorategiak ipintzea, oinezkoendako gune gehiago egokitztea, eraikin zaharrak modu berezian argizatzea eta taberna kanpoetan terrazak ipintzea, besteak beste.

ARRASATERENDAKO ARRISKUAK

Saltoki txikiendako arriskurik handiena, jakina, erosle falta eta galera da. Arrasatekoek ere jasaten dute horrelakorik. Eusko Jaurlaritzaren ikerketak hala dio.

Haren arabera, oro har, Gasteiz gero eta gehiago erakartzen ditu inguruko erosleak, batez ere, azkenaldian dezente hobetu direlako bai Gasteizko eskaintza komertziala, baita, hara joateko bideak ere. Gainera, aurrera begi-

ra, 79.153 m²ko merkataritza gunea eraikitzeke asmoa dute Gasteizen, ondorioz, pentsatzekoa da horrek ere jende gehiago erakarriko duela.

Beste aldera begiratzen badugu, Debabarren ingurura, Eibar aurkituko dugu. Laster, 16.000 m²ko Corte Ingles handia eraikiko dute Eibarren; eta horrek ere erakarriko ditu erosleak.

Eta, Debagoienean bertan ere badago zer aipatu; izan ere, Bergarak 224 saltoki ditu eta alter-

natiba polita izan daiteke inguruko erosleendako. Datuen arabera, batez ere, norberarendako gauzak erosteko (jantziak, zapatak...) saltoki bila irteten dira erosleak Arrasateetik kanpora. Arrasatearrek egiten duten gastu osoaren %31,5a herrikanpo egiten du. Hortaz, horrekin guztiorrekin lehiatu beharko du Arrasateko merkataritza.

Edozelan ere, horrekin batera, Arrasate Debagoieneko merkataritza gunea dela ere ondorioztatzen du txostenak. Izan ere, ibarreko herritarren %54,9a hondator erosketak egitera. Eroski Hipermerkatuak eragin handia izan du horretan.

AISIALDIA DELA-ETA

Saltokiez gain, aisialdiarekin lotutako zerbitzuak ere garrantzitsuak dira herrira jendea erakartzeko orduan. Horren barruan zinemak daude, adibidez.

Ikerketako inkesten emaitzen arabera, arrasatearren %26,8arendako herriko eskaintza txarra da; %14,5ak uste du erdizkako dela; eta %16,9aren ustez egokia da. Oro har, gehienek uste dute gaur egungo zinemak hobeto ekipatuta egon beharko liratekeela; beste batzuk, aldiz, multizinemak eskatzen dituzte.

Zinemaren kasuan, arrasatearrek egiten duten gastu osoaren %37a herrikanpo egiten dute.

TRAFIKO ETA APARKALEKU ARAZOAK
Trafiko eta aparkaleku arazoak

Arrasate inguruan dauden eta egingo dituzten saltoki garrantzitsuenak

Herria	Denda kopurua	Merkataritza gunek	
Arrasate	293	Hiper Eroski	6.200 m ²
Bergara	224	-----	-----
Eibar	597	Maxi Eroski	2.840 m ²
Gasteiz	3.921	Gorbeia	59.773 m ²
		Lakua	17.500 m ²
		Hiper Eroski	13.307 m ²
		Dendaraba	5.075 m ²
		El Corte Inglés	13.000 m ²
Egingo direnak			
Eibar	23	El Corte Inglés	16.000 m ²
Gasteiz	36	Boulevard	79.153 m ²

EUSKO JAURLARITZAREN TXOSTENA

Taulan ikusten den moduan, laster merkataritza gune handi gehiago eraikiko dituzte Arrasatek gertu.

Herria biziberritzeko merkataritzak duen garrantzia aipatu dute zenbait dendarik

Arrasaterako arriskurik handiena Gasteizko merkataritza gunek dira

Jaurlaritzaren proposamenen artean, herriaren urbanizazioa egokitzea dago

aipatzen ditu Jaurlaritzaren txostenak. Inkestatutako herritarren %54,4ak uste du herri barruko trafikoa oso eskasa dela; berriz, %22,4ak uste du eskasa dela.

Aparkalekuei begiratuta, egoera okerragoa da. %82,7aren ustez oso nekeza da aparkalekua aurkitzea; eta %10,7ak uste du nekeza dela.

Eta, horrekin guztiarekin batera esan beharra dago, ikerketaren arabera, erosleen gehien-goak (herri barrukoak zein kanpotik datozenak) automobila erabiltzen dutela erosketak egiteko.

PROPOSAMENAK

Esandako guztia eta bestelako zenbait datu aztertu eta gero, Jaurlaritzak honako proposamen hauek egiten ditu Arrasateko dena eta saltoki txikiei laguntzeko:

- Saltzaileen etengabeko formazioa: berrikuntzetara eta bezeroen beharretara egokitzen ikasketek.

- Saltokia bera berritzeko ekimenak bultzatzea: Udaletik erraztasunak ematea (aholkulari lanak egitea; lanak egiteko erraztasunak ematea (lizentziak...); zer-gak merkatzea edo kentzea...

- Saltoki gehiago ipintzea: Uribarri/Uribe/Erguinen eta Musa-

kola/Santa Marina/Santa Teresa auzoetan, batez ere.

- Herriko jarduera komertziala indartzeko animazio eta promozio ekimenak egitea: gero eta handiagoa den kompetentziari aurre egiteko; eta kontsumitzaileei eskaintzen diren zerbitzuen berri emateko (bezero berriak lortzeko eta daudenak mantentzeko).

Horren barruan, merkataritzako eskaintzarekin web orria sortzea proposatzen du Jaurlaritzak; herriko komunikabideetan publizitate kanpainak egitea; eta baita bestelako promozio ekimenak egitea ere.

- Arrasateko merkataritza gunea (Arrasateko dendak) batuko dituen izen eta irudi bakarra sortzea.

- Herriaren urbanizazioa dela-eta: saltoki gehienak dauden gunea egokitzea: espaloi gehiago, aparkalekuak (Otalora inguruan eta Garibain; eta Laubidekoa handitzea), TAO ipintzea...Otalora Lizentziaduna kalea berriro antolatzea (espaloiak zabaldu, tranbiarendako lekua egin)... Kalean gune libreak ipintzea (eskulturekin, umeendako jolasekin, tabernen terrazak...

- Merkatu txikia berritzea.
- Aisialdiarekin lotutako jar-

duerak indartzea, instalazio berriekin.

- Auzoak: merkataritza gune txikiak ipintzea, besteak beste. Eta auzorik auzo joanez gero:

San Andreserako: aparkalekuak sortzea, oinezkoendako guneak sortzea, espaloiak handitzea eta hiri-altzari berriak.

Musakolarako: hiri-altzari berriak ipintzea, besteak beste.

Santa Marina/Santa Teresa: Musakolarekiko lotura hobetzea (eskailera mekanikoekin).

Altamira/Santa Teresa: Erdigunearekiko konexioa hobetzeko Altamirarako igogailua ipintzea, besteak beste. Eta Gernika Oinezkoen Zumardiaren zati bat estaltzea, eguraldi eskasa dagoenerako.

Uribarri/Olan: goiko aldeko guneak Uribarri etorbidearekin lotzeko bost eskailera mekaniko.

UDALAK ZER DIOEN

Lehen esan dugunez, Udalak duela gutxi izan du Jaurlaritzaren txostenaren berri. Hortaz, oraindik ez du erabakirik hartu. Txostenak esaten duen guztia aztertuko dute, eta gero, proposatzen dituen neurri batzuk onartuko dituzte eta beste batzuk ez. Hala ere, esan bezala oraindik ez dute inolako erabakirik hartu.



UBANE MADERA

Alboko atletik sartu ziren lapurrak Sportland kirol dendara.

Berriro ere lapurretak izan dira Arrasaten

UBANE MADERA

Zoritxarrez, berriro ere lapurretak berbaigai ditugu. Izan ere, joan den domekan eta astelehenean gauean lapurretak eta lapurreta saiakerak izan ziren Arrasaten. Sportland dendak izan ditu kalterik handienak.

Ertzaintzak esandakoaren arabera, alboko atletik sartu ziren Sportland kirol dendara, alarmaren kableak moztuta; eta barruan kutxa gotorra zabaltzea lortu zuten. Horrez gainera, kirol material dezente lapurtu dutela adierazi digute Sportland dendakoek;

bereziki, mendira edo eskiatzera joateko materiala ostu dute. Jantziak, zapatilak eta horrelakoak ere eraman dituzte lapurrek. Ertzaintzak esandakoaren arabera, gertatutakoa argitzeko ikerketa abiarazi dute.

Bestalde, Hermanos Alonso zapata dendan sartzen ahalegindu ziren, baina ez zuten atea zabaltzerik lortu. Eta Arrasate pasealekuan Ford Sierra markako automobil bat lapurtzen ahalegindu ziren; baina zailtasunak izan zituzten eta azkenean Ford Fiesta bat lapurtu zuten. Los Vaqueros dendan, berriz, kristala apurtu zuten domekan.



Etorkizuneko ibarraren berri jakin guran

Jende ugari joan zen astelehenean osoko bilkuren aretora, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako Debagoieneko Lurraldearen Zatik Planaren aurkezpena egin zuten-eta. Plana bera idatzi duen Jose Miguel Toledo arkitektoak azaldu zituen etorkizuneko asmo horien ezaugarri nagusiak. Hain justu ere, datozen 16 urteotan ibarrean egingo dituzten lanak ageri dira planean: errepideak, etxebizitzak, azpiegiturak, garraio zerbitzuak eta aisialdirako ekipamenduak. Ondorioz, interes handia piztu du herritarren artean.

GIZARTEA/ Sexologia Zerbitzua

Udal Sexologia Zerbitzuan berrikuntzak egin dituzte

UBANE MADERA

Geroago eta zerbitzu zabalagoa eskainiko du Sexologia Zerbitzuak. Besteak beste, langile eta ordu gehiago emango dituzte. Hala azaldu zuten prentsaurrekoan. Herritarren, erakundeen eta zerbitzuaren arteko lankidetzaren garrantzia aipatu zuten.

Zirrilda elkarteko Amaia Carrera, Ana Elosegia eta Elena Jiménez sexologoak arduratuko dira hemendik aurrera Arrasateko Sexologia Zerbitzuaz. Eguenean aurkeztu zituzten langile berriak, prentsaurrekoan.

Prentsaurrekoan esan zuten orain dela sei urte Arrasateko Udalak abiarazitako zerbitzu hori etengabe hazten joan dela; eta orain ere bide beretik jarraitu gura dute. Hori dela eta, langile gehiago ipintzeaz gainera, ordu gehiagoko zerbitzua eskainiko dute Garibai etxeko bigarren solairuan. Horrela, bada, herritarrei laguntzeko honako egunetan eta orduetan egongo dira hiru sexologoak: astelehenetan, 11:00etatik 13:00etara; eguaztetan, 16:30etik 20:00etara; eta, azkenik, egubakoitzetan, 16:30etik 20:00etara.

Hortaz, edozein kezka, arazo edo bestelako zalantzaren bat argitu gura duenak hara joa berririk ez du, eta ahal duten neu-



UBANE MADERA

Amaia Carrera, Ana Elosegia eta Elena Jiménez dira Sexologia Zerbitzuko langileak.

rrian lagunduko diote. Bestela, telefonoz ere dei daiteke Sexologia Zerbitzura: 943 79 80 10.

ELKARTEKIN ETA PROFESIONALEKIN

Baina norbanakoendako zerbitzu horrez gainera, zenbait alorretako elkarte eta profesionalen zuzendutako zerbitzua ere eskainiko dute: hezkuntza eta osasun arloko profesionalen, herriko elkartei, erretiratuei...

Oro har, orain arte Sexologia Zerbitzuak Arrasaten egin duen ibilbide luzearekin jarraitu gura

dute, sexualitatearen gainean dauden beldur eta topikoei aurre egiten laguntzeko. Eta, jakina, begirunezko jarrera positiboak bultzatzeko.

Herri osora zuzendutako ekimenak ere egingo dituzte.

Horren harira, Sexologia Zerbitzuaren beraren eta gainerako herritarren, elkarten eta erakundearen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela azpimarratu zuten prentsaurrekoan Zirrilda elkarteko sexologoek. Bi noranzkoko zerbitzua lortu gura dute.

ZERBITZUAK/ Errausketa zerbitzua

Ingurukoek ere erabiltzen dute errausketa zerbitzua

Iaz San Kristobal Udala Hilerriak egindako zerbitzuen laburpena aurkeztu dio Zerbitzu Sailak oraingo asteko Gobernu batzordeari.

Horren arabera, nitxoetan 70 lagun hilobiratu zituzte, panteoietan 18 eta auzoetako hilerrietan, bost. Eta 129 lagun erraustu zituzte. Errausketa gehienak Arrasateko lagunenak izan dira (68), baina ibarreko bestelako herrietako, Debabarrengeko zenbait herritako eta oraindik urrutiragoko hildakoak ere erraustu zituzte San Kris-

tobalen; Donostiakoak eta Gasteizkoak, adibidez. Hortaz, ikusten denez, inguruko herrietatik ere etortzen dira Arrasateko errausketa zerbitzua erabiltzera.

TASAK

Bestalde, gorpuzkinak errausteko zerbitzuaren tasak berberak izan ditu Gobernu batzordeak. Zerbitzu Sailak egindako proposamenaren arabera, hezurtegien egondako gorpuzkinak erraustea 60 euro kostatuko da, betiere, asko jota hiru gorpuzkin errausten badira. Eta nitxoan egondako gorpuzkinak erraustea ere 60 euro kostatuko da. Hori bai, nitxoan eta hezurtegien egondako gorpuzkinak batera errausten direnean, batetik, hezurtegien egondako gorpuzkinak erraustearen tasa ordaindu beharko da eta, bestetik, nitxoan egondako gorpuzkinena.

Gobernu batzordeak onartu egin du Zerbitzu Sailak egindako proposamena.



UBANE MADERA

Donostiatik eta Arrasatetik etorri izan dira errausketa zerbitzua erabiltzera.

LABUR

Martxoari dagokion osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak egunean

Gai zerrenda laburra landu du oraingo astean Arrasateko udalbatzarrak. Baina landutako gaiak nahiko sakonak dira. Izan ere, batetik, Laubideko eta Garibaiko aparkalekuen gunea eraikitzeko, urbanizatzeko eta ustiatzeko proiektuaren adjudikazioa landu zuten zinegotziek. Horrez gainera, Debagoieneko Lurralde Zati-ko Planari Arrasateko Udalak Debagoieneko Mankomunitatearekin batera aurkeztuko dizkion alegazioak landu zituzten. Eta 1936ko kolpe militarrean fusilatutako herritarren aitortza eta ordain moralaren alde izenburua duen mozioa aurkeztu zuten. Edozelan ere, albisteak idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dakigu zein erabaki hartu duen Arrasateko udalbatzarrak.

Frantziako kartzeletan dauden euskal preso politikoaren egoera salatu dute

Herriari *Mitard* berbarekin idatzitako kartel mordoxka ipini eta gero, oraingo astean azaldu dute zer esan gura duen horrek. Kontua da zenbaitzuek modu bitxi hori erabili dutela Frantziako kartzeletan dauden presoaren egoera salatzen. Esaten dutenez, ziegatoko baldintzak eskasak dira: 3x2 metro besterik ez dute, porlanezko ohe bat, mahai bat eta turkiar motako komuna. Presoek egunean 23 ordu ematen dituzte han, kateatuta eramaten dituzte, ez dute arropaz aldatzeko aukerarik eta janari gutxi eta hotza ematen diete, besteak beste.

San Andresen zaborra eta plastikoak batzeko edukiontziekin arazoak izan dituzte

San Andres auzoko alkatetzak Udalari jakinarazi dionez, arazoak dituzte auzoan zaborrendako eta plastikoendako edukiontziekin. Zaborra batzeko edukiontzia hutsik daudenean haizeak mugitu eta bota egiten dituela jakinarazi du auzo-alkateak; eta tapak mugitu egiten direla eta, horren ondorioz, burrunba handia ateratzen dutela. Horrez gainera, plastikoa batzeko edukiontzia hutsik zein beteta daudenean haizeak mugitu egiten dituela jakinarazi dio Udalari. Azkenik, mota bietako edukiontziek zenbait ibilgailutan kalteak sortu izan dituztela ere esan dio.

Horren aurrean Arrasateko Udalak dio edukiontzien ardura Debagoieneko Mankomunitatearena dela. Hortaz, erabaki du egoera konpontzeko eta horrelakorik berrituz gertatzeko Mankomunitateari konponbidea topa dezan eskatzea. Batez ere, ondusunendako eta pertsonendako egoera arriskutsua delako.

Besaide birsortzeko 12.500 zuhaitz sartuko dituzte

UBANE MADERA

Euskal Herriko forestalistek eta Mendi Federazioak bultzatutako *Besaide Egokitzea* izeneko egitasmoa aurkeztu zuen Basoa Fundazioak joan den egunean Besaiden bertan. Guztira 12.500 zuhaitz sartuko dituzte.

Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak bat egiten duten leku esanguratsu haren garapena jasagarria eta ekologikoa izatea gura du sortu berri den Basoa Fundazioak. Eta, horretarako, besteak beste, Besaiden zuhaitzak landatuko dituztela erabaki dute.

Joan den egunean aurkeztu zuten egitasmoa Besaide mendian bertan.

Han jakinarazitakoaren arabera, zuhaitzik egokienak zeintzuk diren jakiteko ikerketa egin eta gero, Basoa Fundazioko kideek erabaki dute, urkia, pagoa, haritza eta lizarra motako zuhaitzak direla Besaidarako egokienak.

Horrela, bada, guztira 12.500

zuhaitz sartuko dituzte 12 hektareako lursaillean.

LEHENENGO ALDIA

Lehenengo aldian 5.443 zuhaitz landatuko dituzte: 867 urki eta 4.576 haritz, alegia. Datozen bi urteotan ibiliko dira landaketa horiek egiten. Edozelan ere, orain arte ere ibili dira lanean, zuhaitzak landatzeko guneak egokitzeko eta larre-gunea hobetzeko, hain justu ere. Eta, zuhaitzak landatzeaz gain, ganaduarendako hesiak eta antzerakoak eraikitzeko asmoa dute.

Ikerketa hori Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako forestalisten artean sortutako Basoekin izeneko enpresak egin du.

Lehenengo urtean 23.000 euro inbertituko dituzte hori guztiori egiteko; 13.000 euro bigarren urtean eta 18.500 euro hirugarrenean.

BASOA FUNDAZIOA

Irabazi asmo bariko elkarte da. Helburu nagusia da zuhaitzen aldetik Euskal Herriak duen aberastasuna babestea eta indartzea.



AEK-KOAK SAGARDOTEGIRA!

AEK-koek urtero egiten dute sagardotegira irteera, eta ondoko argazkia aurtengo irteerakoa da. Esan barik doa aurten ere koadrila galanta animatu dela sagardotegirako irteerara, eta, argazkian ikusten denez, sagardoa edan eta txuleta ederrak jateaz gain, sagardote-

giko giroa berotu zutenak ere eurak izan ziren trikitiarekin eta panderoarekin. Helburua apurka-apurka euskara maila hobetzea da, eta hori egiteko sagardotegi bat baino leku aproposagorik ezagutzen du inork? ARRASATE PRESSko lankideok ez, behintzat.

EZIN SUKALDEA AHAZTU

Maider Larrañagak eta Igor Ezpeletak eztei-bidaia egin berri dute AEBetara. Bidaia ikusgarria egin dute, eta hainbat lurralde ezagutu dituzte. Milaka kilometrora egonda ere, argazkiak argi erakusten du bikoteak ezin duela Arteaga jatetxeko sukaldea ahaztu.



'BETIZU' ARRASATE IRRATIAN

Eguztenean *Betizu*-ko lagunak Arrasate Irratian egon ziren. Atera berri duten diskoaren aurkezpena egin zuten eta, horrez gainera, eskaintzen dabiltzan kontzertuen berri eman zuten. Eskerrak Euskal Telebistako izar berriak zetozeela apal-apal jarri genuen, bestela sinadurak egiten pasatuko lukete arratsaldea.



Mondrak bide onetik jarraitzen du, nahiz eta besteek kalerik ez egin

XABIER URZELAI

Mondrak 5-0 irabazi zion joan den zapatuan Ondarroako Aurrera taldeari. Arrasatekoak erraz nagusitu ziren, baina partiduko lehenengo zatian arrasatearrek uste baino zailtasun handiagoak izan zituzten. Oraingo jardunaldiko puntuak Mutrikun daude zain.

Hiru puntuak eskuratuta ere, Arrasateko futbol taldeak hirugarren postuan jarraitzen du, Urolak eta Zumaiakok ere ez zuten-eta kalerik egin. Mondragoetarrek bi talde horien hutsegiteen zain egon behar dute, eta hutsegite horiek ahal den moduan aprobeztatu.

Joan den asteburuan sailkapeneko goiko postuetan dauden hiru taldeek norgehiagoka errazak izan zituzten, kontrario makalen kontra jokatu zuten. Oraingo asteburuan, baina, hiru taldeek kanpoan jokatu beharko dute, eta norgehiagokak ez dira horren errazak izango. Mondrak zazpigarren postuan dagoen Mutrikuren zelaian jokatu beharko du. Urolak, liderrak, Seguraren kontra neurtuko ditu indarrak eta Zumaiakok Eibarren jokatu du. Partidu bat bera ere ez da erra-



IOSU TXINTXURRETA

Mondrak gol ikusgarriak egin zituen zapatuan.

za izango, eta baliteke oraingo jardunaldian sailkapenean aldaketak gertatzea.

DEFENTSAN, ASKOZ ERE HOBETO

Mondrak erraz egiten ditu golak: dagoeneko 76 gol egin ditu eta oraindik asko daude egiteko. Joan den zapatuan Mondrak bost gol egin zituen: Muruak hiru gol, Iker Lópezek gol bat eta Iker Laspiurrek beste gol bat. Mondra talde golegilea da, baina jaso ere gol

asko jasotzen zituen, eta hortxe hobetu du Arrasateko taldeak. Mondrari azken zortzi partiduetan bi gol baino ez dizkiote egin, eta, berriz, 27 gol egin ditu. Denboraldian barrena taldeak golak egiteko daukan abilezia azpimarratu izan dugu, baina bada ordua taldeko defentsen lana azpimarratzeko. Kanpoan jokatu dituzten partiduetan eraso bezain garrantzitsua izango da defentsa zaintzea.

FOTOKIROLA



Errugbian, Elorrio nagusi (22-12)

Joan den asteburuan Arrasateko Errugbi Taldeak Elorrioren kontra neurtu zituen indarrak. Norgehiagokak ikusgarria behar zuten, bi taldeak goiko postuetan zeudelako. Arrasatekoak errebantxa gogoz joan ziren Elorriora, Garagartzan jokatu zuten Elorrio nagusitu zen-eta. Arrasatearrek, baina, gaizki jokatu zuten, eta Elorriok maila hobea erakutsita 22-12 irabazi zuen. Oraingo asteburuan Santanderko Juventud taldea izango da arrasatearren kontrarioa. /X.U.

FOTOKIROLA



Antxintxika Debagoiena Taldea, dagoeneko lanean

Antxintxika Debagoiena Taldea dagoeneko badabil lanean, orain dela hiru aste hasi zen-eta duela denboraldia. Antxintxika Debagoiena Taldea ibarreko atletek osatzen dute, baina Gasteizko atletak ere badaude. Arrasateko hamabost triatloilari daude ibarreko taldean, eta horietako batek, Zuhaitz Ezpeletak, dagoeneko irabazi du aurten duatloi bat, Barakaldokoa, hain zuzen ere. Horrez gain, aurten Debagoieneko triatloi probak ere ez du kalerik egingo. Ekainaren 7an izango da proba hori, eta berritasun bat egongo da: gaztetxoendako triatloi txiki bat ere egongo da. /X.U.

AUKEA 2002 SARIAK

Iban Galán, Jose Arriaran eta Debagoieneko Zikloturista Taldearendako AUKEA sariak

AUKEAko Zuzendaritza batzordeak dagoeneko erabaki du nori eman 2002ko AUKEA sariak. Iban Galán karatekak jasoko du banakako kirolari onenaren saria. Kirol talde onenaren saria, berriz, Debagoieneko Zikloturista Taldeak jasoko du.

Horrez gain, Jose Arriaranek aipamen berezia jasoko du, bere garaian punta-puntako pilotaria izan zelako. Oraindik erabaki barik dago sari banaketa noiz izango den.

PILOTA

Arrasate Udaberri Txapelketatik kanpo dago, baina Debarroko Txapelketa geratzen da

Joan den egubakoitzean, Arrasateko senior mailako pilotariak Intxaurrendoren kontra jokatu zuten. Udaberri Txapelketako finalerdietara sailkatzeko mondragoetarrek beharrezkoa zuten irabaztea, baina Intxaurrendoren nagusitu zen (13-22). Arrasatekoek ez zuten zortea lagun izan: Lazkanok min hartu zuen eskuan, eta esku bakarrarekin ezin gauza handirik egin.

Udaberri Txapelketatik kanpo geratu diren arren, mondragoetarrek Debarroko Txapelketan bizi-bizirik daude. Datorren egunetean, arratsaldeko zazpitan, Arrasateko eta Bergarako pilotariak izango dira nor baino nor gehiago Uarkapen.

ZIKLOTURISTAK

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldearen bosgarren irteera

Domekan Arrasateko Debagoiena Taldeak denboraldiko bosgarren irteera egingo du. Goizeko bederatzita eta erdietan irten, eta ziklistek Araba aldera egingo dute: Eskoriatza, Arlaban gaina, Landara eta Ozaetaraino joango dira. Ozaetan buelta eman eta berriro ere Landara itzuli eta gero, txirrindulariak ibarrera bueltatuko dira. Guztira hirurogei kilometro egingo dituzte.

AGR Arrasatek ez du Kopa Txapelketa gura bezala hasi

XABIER URZELAI

Senior mailako Liga Txapelketan Arrasatek ordezkari bi izan dituen arren, Kopan talde bakarrak ordezkatu du Arrasate. Joan den astean Kopa Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zen, eta AGR Arrasatek 30-26 galdu zuen Urnietaren kontra. Domekan Leitzararen kontra jokatu dute Iturripen.

Kopa Txapelketan Arrasatek talde berria izango du. Liga Txapelketa atzean utzita, AGR Arrasate eta Arrasate taldeetako jokalariek batzuek taldea utzi dute, eta Kopa Txapelketari aurre egiteko bi taldeetako jokalariek talde bakarra osatu dute.

Kopa Txapelketa joan den astean hasi zen, eta mondragoe-tarrek ez zuten txapelketa hori gura bezala hasi. Arrasateko taldea jokalariek gutxiarekin joan zen Urnietara, eta taldearen jokoan igarri egin zen hori.

LEHENENGO ZATIA, PAREKATUA

Lehenengo zatian Urnietak, nahiz eta etxean jokatu, ez zuen nagusitasun argirik erakutsi. Parekotasuna izan zen markagailuan, eta lehenengo zatia amaitutako-



Urnietaren kontra mondragoe-tarrek ez zuten ongi jokatu.

an berdinketarekin erretiratu ziren aldageletara (16-16).

Bigarren zatian, arrasatearren kalterako, gauzak dezente aldatu ziren. Urnietak aurre hartu zuen markagailuan, baina mondragoe-tarrek defentsa aldatu eta partidua berdintzeaz gain, aurre ere hartu zuten. Segidan, baina, Arrasate jokalariek bat gutxiagorekin geratu zen, eta Urnietak bikain aprobeztatu zuen hori. Azken minutuetan mon-

dragoetarrek gaizki jokatu zuten, eta Urnietak lau goleko alde eskuratu zuen (30-26).

Oraingo asteburuan mondragoe-tarrek Kopa Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute. Partidua domekan izango da, 11:30ean, Iturripeko kantxan. Norghegiagoka horretarako ere Arrasate jokalariek gutxi izango ditu, baina taldekideek argi dute Kopa irabazteko gai direla, eta hori da helburua.

Kenci Arrasate, igoera fasea jokatzeko gertu

X.U.

abantaila handiagoa dutela.

Arrasateko Saskibaloitza Taldeak zapatu arratsaldean (Iturripen, 18:00) EHU Araba taldearen kontra jokatu du igoera faseko lehenengo jardunaldia. Taldeak ez du helburu zehatzik: lasai jokatu eta jokalariek gazteei minutuak eman.

Kenci Arrasate justu-justu sailkatu da igoera faseko, eta talde mondragoe-tarrek aukera gutxi ditu igoera fasean aurrera egiteko, Liga Txapelketako emaitzak kontuan hartzen dira-eta.

Arrasate azkeneko postuan sailkatu zen igoera fasea jokatzeko, eta, hortaz, argi dago gainerako taldeek Kencik baino

LASAI JOKATZEKO AUKERA

Arrasateko jokalariek ahalik eta emaitza positiboena lortzeko egingo dute lan. Mailari eustea lortu dute, eta datozen partiduetan lasai jokatu ahal izango dituzte. Mondragoe-tarrendako ez da denboraldi erraza izan, eta astero-astero sailkapenari begira egin dute lan.

Hori guztia ahaztu eta igoera faseko partiduetan junior mailako jokalariek minutuak emateko balio izango dute. Igoera faseko lehenengo partidua bihar arratsaldean jokatu dute, EHU Araba taldearen kontra. Partidua Iturripen izango da, arratsaldeko seietan.

Gipuzkoako Eskola Arteko Atletismo Txapelketa jokoan

X.U.

luzea egin behar da oraindik.

Domekan Gipuzkoako Eskola Arteko Atletismo Txapelketa jokatu da Anoetan, eta Arrasatek izango du ordezkari-rik: San Viator Ikastetxea. San Viatoroko zazpi atleta izango dira txapelketan.


Domekan Gipuzkoako Eskola Arteko Atletismo Txapelketa jokatu da, eta Gipuzkoako hamabi ikastetxetako atletak izango dira nor baino nor gehiago. Txapelketa horretan maila onena erakusten duten ikastetxe biek Euskadiko Txapelketarako txartela eskuratu dute. Euskadiko Txapelketan nagusitzen diren ikastetxeak, berriz, Espainiako Txapelketarako sailkatuko dira, baina horra iristeko bide

ARRASATEKO ZAZPI ATLETA

Domekan Arrasateko zazpi atleta izango dira Gipuzkoako Txapelketan: pisu-jaurtiketan, Aratz Bergaretxe; 80 metroko hesi-lasterketan, Iñaki Etxagibel; 80 metroko lasterketan, Imanol Esperezate; altuera-jauzian, Jon Ander Amado; luzera-jauzian, Iñaki Telleria; 500 metroko lasterketan, Jokin Uribetxebarria; eta 3.000 metroko lasterketan, Markel Blanco.

Horrez gainera, errelebutako lasterketa ere jokatu da, eta Iñaki Etxagibelek, Jon Ander Amadok, Markel Blancok eta Imanol Esperezatek hartuko dute parte lasterketa horretan. Ea, bada, Arrasateko atleta gazteek zortea alde duten domekan.

FOTOKIROLA



Boulder Txapelketan arrasatearrak jaun eta jabe

Joan den egubakoitzean Boulder Txapelketa jokatu zen Arrasaten, eta Mendieta anaiak izan ziren protagonistak. Txapelketan Mondragoeko eskalatazaileak egoteaz gain, Gasteizko eta Durangoko eskalatazaileak ere hartu zuten parte. Nagusien mailan, Markel Mendieta arrasatearra izan zen onena. 18 urtetik beherakoetan Ander Mendieta nagusitu zen eta nesketan Gasteizko Irati Anda eskalatazaileak erakutsi zuen trebezia handien. Arrasateko proba Gasteizko eskalatazaile taldeak antolatu duen txapelketaren laugarren proba izan zen. Mendieta anaiak txapelketa irabazteko aukera handiak dituzte, baina oraindik azken proba geratzen da egiteko: finala.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Leizaran (Kopa)
Seniorrak. Domekan. 11:30. Iturripen.

Egia Joggers - Gatz Museoa
Gazteak. Fase finala. Domekan. 10:00. Egian.

Leizaran - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 20:00. Andoainan.

Aloña Mendi - Gatz Museoa
Kadeteak. Zapatuan. 19:00. Oñatin.

FUTBOLA

Mutriku - Mondra
Erregionala. Domekan. 16:30. Mutriku.

Kostkas - Mondra
Ohor. gazteak. Zapatuan. 17:15. Matigoxotegin.

Arrasate - Intxurre
Kadeteak. Zapatuan. 12:15. Atxabalpen.

Soraluze - Arrasate B
Kadeteak. Kopa. Domekan. 17:00. Ezoizian.

Arrasate - Beasain
Infant. Igoera fas. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

Elgoibar - Mondra
Neskak. Domekan. 16:30. Mintxetan.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - EHU Araba
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

ERRUGBIA

Arrasate - Juventud
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

PILOTA (DEBARRO TXAPELKETA)

Arrasate - Bergara
Gazteak. Egubakoitzean. 19:00. Uarkapen.

Arrasate - Bergara
Seniorrak. Egubakoitzean. 19:30. Uarkapen.

EMAITZAK

ESKUBALOA
Gazteak: Gatz Museoa Jakion - Elgoibar. 23-19

ERRUGBIA
Seniorrak: Elorrio - Arrasate 28-12

FUTBOLA
Ohor. gaz.: Mondra - Euskalduna. 2-0

ARRASATE KIROL PROIEKTUA



Aurreko urteotan ere egon da Arrasaten TAU Baskonia saskibaloia taldea.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Datorren egubakoitzean, apirilak 4, TAU Baskonia Arrasatera etorriko da

TAU Baskonia taldearen entrenamenduaz gain, gaztetxoek ere saskibaloian egingo dute

XABIER URZELAI / AKP

Datorren egubakoitzean, TAU Baskoniako jokalariek zelan entrenatzen duten ikusi ahal izango dute Arrasateko gaztetxoek eta ez hain gaztetxoek. Gasteizko taldea ia urtero etortzen da Arrasatera, eta hori eskertzekoa da.

AKPren eta Arrasateko Saskibaloia Taldearen eskutik, datorren egubakoitzean TAU Baskonia talde gasteiztarra Arrasaten entrenatuko da. Entrenamendua Iturripeko kantxan izango da, arratsaldeko seietan. Entrenamenduaren aurretik, baina, gaztetxo mondragoetarrek saskibaloian egiteko aukera izango dute.

Iturripera hurreratzen den edonork saskibaloiko talde profesional horren entrenamendua bertatik bertara ikusteko aukera izango du. Hortaz, ziur gaude neska-mutiko asko hurreratuko direla Iturripera. Eta entrenamendua ikusteaz gainera, TAU Baskoniako jokalariei sinadurak eskatzeko aukera egongo da eta, era berean, hainbat ezusteko egongo dira.

SASKIBALOI TXAPELKETA

Bestalde, joan den zapatuan alebin mailako Debagoieneko Saskibaloia Txapelketa jokatu zen Iturripeko kantxan. Txapelketa ibarreko herri bakoitzeko

Eskola Kiroleko txapelketen irabazleek hartu zuten parte.

Arrasateko ordezkariak AKPko Gazteluondoko gaztetxoak izan ziren: nesketan Gazteluondo 5 taldeak eta mutiletan Gazteluondo 6A taldeak hartu zuten parte. Gazteluondo 6A taldea izan zen, gainera, Debagoieneko Saskibaloia Txapelketako irabazlea; eta horri esker, Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu da. Nesken mailan, Antzuolako taldea nagusitu zen.

AKP-KO UDALEKUAK

Laster Arrasate Kirol Proiektuak antolatzen dituen udalekuen berri izango duzue. Urtero

moduan, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailara arteko ikasleendako kirol udalekuak izango dira horiek. Uztailaren 1etik 10era arte izango dira. Udalekuotan parte hartuko duten gaztetxoek ekintza mordoa egin ahal izango dituzte: besteak beste, *rafting*-a, piraguismoa, mendiko bizikleta eta espeleologia.

Izena emateko epea apirilaren 11n amaituko da. Udaleku horien gaineko informazio zabalagoa zuen ikastetxeko koordinatzailearen eskutik jasoko duzue. Animatu eta parte hartu, primeran ibiliko zarete-eta!



Joan den urtean gaztetxoak bikain ibili ziren Espinosa de los Monterosen (Burgos).

ZALDIBARARETOFUTBOLA



ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEAK

Betrayer 5-3 nagusitu zen Etxinai! taldearen kontra.

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Dribling.es.vg	3-2
Bikain Akademia - Lasagabaster	4-5
Etxinai! - Betrayer	3-5
Fuxxion - You Know!	2-3

B MULTZOA

AC Surcos - Iriztu Taberna	8-2
Etixerat - AT Celaya	2-3
Makanaki - Koka Juniors	2-2
Goma-2 - Aurrera Bolie	5-2

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Betrayer	8	4
2. Saukelu Scream	7	4
3. You Know!	5	4
4. Lasagabaster	4	4
5. Etxinai!	3	4
6. Dribling.es.vg	3	4
7. Fuxxion	2	4
8. Bikain Akademia	0	4

B MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	6	3
2. Etixerat	6	4
3. AT Celaya	5	3
4. Goma-2	4	4
5. Koka Juniors	3	4
6. Iriztu Taberna	3	4
7. Aurrera Bolie	2	4
8. Makanaki	1	4

PARTIDUAK

MARTXOAK 29, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: AC Surcos - Etixerat	Antola.
11:00: You Know! - Betrayer	Antola.
12:00: Aurrera Bolie - Koka Juniors	Antola.
13:00: Saukelu Scr - Bikain Akad.	Antola.
16:50: Fuxxion - Lasagabaster	Antola.
18:00: Goma-2 - AT Celaya	Antola.

MARTXOAK 30, DOMEKA

11:50: Makanaki - Iriztu Taberna	Antola.
13:00: Etxinai! - Dribling.es.vg	Antola.

AMAITU DIRA EPAILE LANAK

TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEEK EGINGO DITUZTE EPAILE LANAK

Orain arte epaileekiko errespetua eskatu badugu, hemendik aurrera errespetu handiagoa eskatu dugu. Partiduak epaitzea txapelketan jokatzeagatik jokalariek derrigorrez egin behar duten lana da. Antolatzaileek, baina, txapelketa aurrera ateratzeko egiten dute lan, eta musu-truk egiten dute lan hori. Ezer esan aurretik, birritan pentsatu.

ZIGORREKIN JARRAITZEN DUGU

Joan den astean Makanaki taldeko jokalaria batek izandako jarrerarengatik partidu bateko zigorra bete behar du. Harrigarria da Koka Juniors eta Makanaki taldeen arteko partiduan antolatzaileek jokalaria bakarri zigortzea.

ELKARRIZKETA

MARCELINO RUIZ/MARGOLARIA

“Gurago dut margolanak egin, baina paretak margotzen irabazi dut eguneroko ogia”

IKER BARANDIARAN

Marcelinok oso gazte-
txotatik dauka mar-
gotzeko zaletasuna.
Urtetan ez du margo-
lanik egin, baina aspaldian buru-
belarri dabil eta gaur, egubakoi-
tza, 68 lanez osatutako erakusketa
zabaldu du Harresi aretoan. Api-
rilaren 11ra arte egongo da.

Noiz hasi zinen margolanak egiten?

15 urterekin-edo, Valladoliden bizi nintzenean, eskolak hartu nituen eta margolanak egiten hasi nintzen.

Baina marrazteko zaletasuna gaztetxotatik datorkizu, ezta?

Bai, hala da. Oso gaztetxotan marrazki asko egiten nituen, komikiak kopiatzen nituen... Izan ere, eskolako koadernoak marrazkiz josita edukitzen nituen.

Gaztetan Arrasatera bizi izatera etorri zinen...

Bai, 18 urterekin Valladolidetik Arrasatera etorri nintzen. Lanarekin oso lanpetuta ibili nintzen, eta urtetan ez nuen margolanik egin.

Dena dela, uneoro pinturan jardun duzu, ezta?

Bai, Arrasatera etorri nintzenetik erretiratu nintzen arte pintore lanean ibili naiz. Eta errotulazioa eta zaharberritzea ere ikasi nituen. Gurago dut margolanak egin, baina paretak margotzen irabazi dut eguneroko ogia.

Zer margotzen duzu?

Denetik margotzen dut: figuratiboak, paisaiak... Ez dut gai bakarra aukeratzen, ez aspertze-arren-edo. Aniztasuna aberatsagoa da.

Kanpoan margotzen duzu edo argazkiak ateratzen dituzu?

Denetik. Batzuetan kanpoan margotzen dut eta beste batzuetan argazkia atera eta diapositiba abiapuntu hartuta margotzen dut.

Erakusketa asko egin dituzu?

Ez, gutxi batzuk. Orain dela lau urte Harresi aretoan bertan egin nuen erakusketa eta orain dela lauzpabost urte, Lizarrako Fray Diego jauregian. Horrez gainera, urtero Arrasateko margolarien antolatutako erakusketan parte hartu dut.

Zein teknika erabiltzen dituzu, eta zenbat lan eraman dituzu erakusketara?

Batez ere, pastela eta olioak. Horrez gainera, ikatz-marrazkiak ere egin izan ditut. Lan txikiak, ertainak eta handiak, guztiak batuta 68 lan eraman ditut.

Zein gai lantzen dituzu?

Nekazaritza giroko paisaiak eta motiboak (Urkulu, Aispuru, Marieta, Iruñea...), natura hilak, erretratuak...

Non margotzen duzu?

Kanpoan eta, batez ere, etxean. Margolari taldeko partaide naiz, baina gurago dut etxean margotu.



IKER BARANDIARAN

BAUSCH & LOMB

FreshVision pack
berria daukazuna:
kaxa bi Bausch &
Lomb hieko lenteak
(Softlens Comfort,
Softlens 38, Softlens
66 Toric) eta hiru
pote Renu MultiPlus
240 ml-ko formatu
berria.



Eskaintza berezia
FreshVision
pack bakoitzeko,
agenda
elektroniko
bat opari



Eskaintzaren balioa 2003/5/31 arte.

R.P.S. Nº 164/99 L.L.G.

MULTIOPTICAS

J. Carlos Guerra 1 • Tel. 943 79 29 25 • ARRASATE



IKUSKIZUNA/Vaiven antzerki taldeak 'A cuestras con Murphy' antzezlan eskainiko du


Murphyren Legearen edo patuaren gaineko umorezko hausnarketa eskainiko dute

IKER BARANDIARAN

Domekan, martxoaren 30ean, Vaiven antzerki taldeak *A cuestras con Murphy* ikuskizuna antzetzuko du Amaia Udal Antzokian. Ikuskizuna 19:30ean izango da. Zorte txarra edo Murphyren Legea abiapuntu hartuta hainbat istorio kontatuko dituzte.

Domekan, martxoaren 30ean, Vaiven antzerki taldeak *A cuestras con Murphy* ikuskizuna antzetzuko du. Sei aktorek pertsonaia bi irudikatuko dituzte. Honako hauek izango dira: Nagore Aranburu, Aitor Gabilondo, Patxi Pérez, Ana Pimenta, Olatz Beobide eta Oscar Terol, hain zuzen ere. Antzezlanaren ideia Santiago Sueiras eta Ana Pimentarena da, eta Santiago Sánchezek egingo ditu zuzendari lanak.

Ikuskizuna gaztelaniaz antzetzuko dute eta helduendako da. Komedia horrek 95 minutu inguru iraungo du. *A cuestras con Murphy* 2002ko apirilean estreinatu zuten, Donostiako Antzoki Zaharrean. 2002ko maiatza ezkerro, osterara, bira egiten dabilta ikuskizuna aurkezteko.



Vaiven taldearen *A cuestras con Murphy* antzezlanak oso kritika onak jaso ditu.

nikoa. Bide batez, komedia dramatikoa eta erromantikoa uztartu dituzte. Dagoeneko zenbait herritan antzetzuko dute eta oso kritika onak jaso ditu.

SEI URTEAN, IBILBIDE LUZEA

Vaiven ekoizpen enpresa 1997an sortu zuten. Bultzatzaileak Ana Pimenta eta Iñaki Salvador izan ziren. Batez ere antzezlanak prestatu dituzten arren, musika ikuskizunak ere egin gura dituzte.

1998an, *La Coraje* izeneko bakarrizketa prestatu zuten, Ber-

told Brecht-en omenez. Ana Pimentak eta Iñaki Salvadorrek egin zituzten antzezle lanak. Ikuskizun harekin urte biko bira egin zuten.

1999an, *Crímenes del corazón* prestatu zuten. Komedia garratz horren egileak, Beth Henleyk, Pulitzer saria irabazi zuen. Familiarteko harremanak eta tratu txarrak landu zituzten. Urte osoa ibili ziren *Crímenes del corazón* lana antzetzten, eta emakumeen elkarteek, batez ere, oso ondo hartu zuten.

2000n, *Sin vergüenzas* izene-

ko lana prestatu zuten. Gazteen-dako komedia hark sexualitatea zuen gai nagusi. Sexualitatea errespetuz eta tolerantziaz hartu zuten.

Lan harekin Vaiven taldea ikusle gazteengana hurbildu gura izan zen.

Sin vergüenzas ikuskizuna 120 aldiz antzetzuko dute eta antzetzuko duten aldi gehienetan aretoak lepo bete dituzte. Dagoeneko 45.000 lagunetik gora ikusi dute. Bestalde, euskarara moldatu dute, eta katalunierara moldatzeko asmoa ere badute.



Arrasate Musikal lan eta lan dabil

Arrasate Musikal lanean buru-belarri dabil eta datozen egunetarako hainbat kontzertu antolatu ditu: gaur, egubakoitza, Arrasate Musikal saxofoi jotzaileek kontzertua emango dute Dulantzín (Araba).

Apirilaren 1ean, berriz, gitarra jotzaileek kontzertua emango dute Musika Eskolan, 19:15ean.

Apirilaren 2an ere egongo da zer ikusi eta entzun: saxofoi jotzaileek kontzertua emango dute Musika Eskolan, 19:15ean. /I.B.

LABUR

Oliver taldearen '100 años de perdón' antzezlan lamain

Gaur, egubakoitza, Oliver taldeak *100 años de perdón* antzezlan eskainiko du lamai kafetegian, gauerdian. Aurreko egubakoitzetan lamai kafetegian egin dituzten antzezlanek oso harrera ona izan dute, eta gaurkoan ere hala izatea espero dute.

Oliver taldea Bilboko da eta orain dela urte eta erdi sortu zuten. Lau aktore finiko dituzte, baina horiez gain beste aktore askok ere egiten dute eurekin lan. Joan den aspaldian talde horrek 15 ikuskizun ditu abian, eta Euskal Herriko herri gehienetan eman dituzte ikuskizunak.

Oliver taldeak antzetzten dituen lan guztiek honako leloa dute: *Ikuskizun bakoitzeko 50 barre-algara ziurtatzen ditugu*. Talde horren lan guztiek 40 minutu irauten dute eta guzti-guztiak umorezko komediak dira. Horrez gain, talde horrek duen beste berezitasun bat honako hau da: antzokiak ez diren beste edozein lekutan ikuskizunak eskaintzen dituzte. Tabernetan, ezkontzetan, bataioetan... egiten dute lan, baina inoiz ez antzokietan.

100 años de perdón ikuskizunean, bi lapur -bata azkarra eta bestea inozoa- museo baten lapurreta egiten ahaleginduko dira. Lapurrak nahastu egingo dira eta museora beharrean ikuskizuna egingo den lekura sartuko dira. Nahaste horrek egoera bereziak eta barre-garriak sorraraziko ditu.

ARTEK hasierako Taila ikastaroa antolatu du

ARTEK, Arrasateko Tailaginen Elkarteak, hastapen mailako Taila ikastaroa antolatu du. Gura duen edonork parte hartu ahal izango du.

Ikastaroa apirilaren 7an hasiko da eta Arrasateko Tailaginen Elkarteak Erguinen duen egoitzan emango dute. Astelehenetik egubakoitzera emango dute; arratsaldeetan. 30 ordu izango dira eta eguneko ordu eta erdi emango dute. Prezioa 50 euro izango da eta 10 lagunendako talde mugatua egin gura dute. Lau lagun baino gutxiago apuntatzen badira, ez dute ikastarorik egingo. Izena eman, gaur, honako telefonoetako batera deituta: 943 79 77 57 (Jose Mari) eta 943 03 78 28 (Imanol).

ARTEK urtero antolatu ohi du Taila ikastaroa, tailagintza ezagutzera emateko; eta udazken aldera erdi mailako ikastaroa antolatzen dute.

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEEN ALDIZKARI BERRIA

TXATXILIPURDI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi 2003ko udalekueetan begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuak curriculum-a, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dituzte Txatxilipurdik Pablo Urangan duen egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioetara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

LUDOTEKA IBILTARIA URIBARRIN

Bihar, zapatua, Ludoteka Ibiltaria egongo da Uribarriko Usaetxe plazan. 3 eta 12 urte arteko umeak jolastu ahal izango dira, 11:00etatik 13:30era bitartean. Txatxilipurdiko begiraleak ibiliko dira umeak eta gaztetxoak zaintzen.

AUZOLANDEGIETARAKO IZENA EMATEKO AUKERA

Hilaren 26an zabaldu zuten auzolandegietarako izena emateko epea eta apirilaren 6ra arte egongo da zabalik. Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 20:00etara egongo da izena emateko aukera, honako telefono zenbakira deituta: 900 10 05 88. Informazio zabalagoa gura izanez gero, www.gazteaukera.net webgunera jo dezakezue.

UME ETA GAZTETXOENDAKO UDALEKUAK

7 eta 13 urte bitarteko neska-mutikoei udalekuek aukera izango dute. Izena eman eta zozketa baten parte hartu beharko dute. Apirilaren 1era arte dute izena emateko, www.gipuzkoa.net/oporraldia webgunean.

Gaztetxeko batzarrak 'Gazta Ya' aldizkaria kaleratu du

IKER BARANDIARAN

Gaztetxeko batzarrak (AGAKO) aspaldi iragarritako aldizkaria dagoeneko kalean dago. Aldizkariak *Gazta Ya* izena du eta doan banatu dute herriko zenbait tabernatan. Hainbat gai landu dituzte.

Arrasateko gaztetxeko batzarrak *Gazta Ya* izeneko aldizkaria kaleratu du. Aspaldi iragarri zuten aldizkaria kaleratzeko asmoa zutela, eta dagoeneko kalean banatu dute.

Aldizkari berriak 16 orrialde ditu eta hainbat gai landu dituzte, hala nola: Echelon espioitza sarea, Udalatx-Anboto mendi ibilaldia, *Egunkaria*-ren aldeko idatzia, gaztetxearen gaineko haus-

Aldizkariaren 200 ale kaleratu dituzte eta doan banatu dituzte herriko zenbait tabernatan

narketa, musika iruzkinak, kurdunen aldeko eta gerraren aurkako idatziak, eta beste batzuk.

DOAN BANATZEN DUTE

Gazta Ya aldizkaria gaztetxeko batzarraren ekimena izan den arren, herriko elkarte eta norbanakoei ere aldizkarian parte har-



ARRASATE PRESS

Gaztetxeko batzarrak aldizkari txukuna kaleratu du.

tzeko gonbita egiten die. Komiak, marrazkiak, idatziak... Denetik jasoko dute gustura.

Horrenbestez, interesatuta bazaudete, bidali zuen lanak Arrasateko 249 posta-kutxara.

LOTSABARIK/ Amaia Lizaranzu

"Batez ere, tontokeriek lotsatzen naute"

IKER BARANDIARAN

Amaia Batxilergo Artistikoa ikasten dabil Eibarren. Hala ere, elkarrizketa hau egiteko aukera eman digu. Antzerkia oso gustuko du, baita futbola ere, baina etorkizuna beste nonbaiten bilatu gura du.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Aktore izan gura nuen. Beti-danik izan dut oso gustuko, baina ez dut gauza handirik egin. Horretaz bizi izatea oso gaitza izan behar da.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Espero dut gustuko dudan

lanpostu baten lanean ibiltzea. Gutxienez bi ume izan gura nituzke, eta ez dakit ezkonduko naizen.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideiala?

Orain ondo nago, baina 18 urterekin hobeto egongo naiz. Automobilarekin askatasun handiagoa izango dudala uste dut.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Maite ditudan pertsonak zaintzeari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Euskara desagertzeak eta maite ditudanak ondo egoteak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jendea normalean lotsatzen duten gauzek eta egoerek ni ez

naute lotsatzen. Ni elkarrizketa honen moduko tontokeriek lotsatzen naute.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Oso alaia naiz; baina, bestalde, oso lotsatia eta burugogorra naiz.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Belarriak, ez direlako askorik ikusten.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei; eta gero, buelta ematen duenean, ipurdiari.

• Arrasaten ligatzen da?

Bai. Batzuek larregi ligatzen dute, eta, horren ondorioz, beste batzuei ez digute ezer uzten.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergo Artistikoko lehen maila • ZALETASUNAK: Futboleko egitea, eta ikustea LIBURU BAT: 'Babilonia' • FILM BAT: 'El hombre que susurraba a los caballos' • MUSIKA TALDEA: Su ta Gar • KIROL TALDEA: Nesken Almen-UDA eta Athletic



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis #Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Ordutegia:
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

ileapaindegia
peluqueria
Gorka

BEHEKOPELUKERIXATIK

Nagore Arabiourrutia

AZUL DE RIZOS PELUKERIXAKUE

XABIER URZELAI

Nagoren esanetan, Azul de Rizos pelukerixiek beste pelukerixa batzuk eskaintzen ez dauena eskaintzen dau. Izen be, eguerdixetan be egitten daue lan, eta klientiek asko eskertzen daue hori. Turismue ikasten hasi zan Nagore, baiñe bukatu aurretik Estetikie ikesten hasi zan, eta horri esker topau dau lana.

Amets bat?

Nauen moduen jarraiketie.
Eta amets txar bat?
Gauzak txarrera egittie.
Egin dozun azken biajie?
Conil herrira (Cadiz), oporretan.

Txartel horixe, zeñiei?

Politikuei.
Eta gorrixie?
Gerrak bultzatzen dittuen politikuei. Baiñe danei, ez oinguei bakarrik.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Moulin Rouge / Las virgenes del paraíso / Roxette gustau izen jat beti.

Drogak legalizauko zeuke?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Sobran ez dauket ezer be. Konforme nau dauketenakin.

Eta faltan?

Biherezkorik, ezer be ez.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Herri lasaixe dala. Hirixen bizi izetie badakit ze dan, eta neure gustorako mugimendu larregi egoten da.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeuke?

Aparkaleku gehixago egingo neuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Etxebizitzen preziuekin badau ze egin.

Bizio bat?



“Eguerdixetan be zabalik eukitten dogu, eta jente askok eskertu egitten dau hori”

Dultziek.
Etxeko zapatillak ala zapatik?
Bixek.
Ezagutu dozun pertsona interesante bat?
Bereziki, iñor be ez.
Eta ezagutu nahiko zeunkeena?
Michael Jordan.
Tranpan ibilteketan norbaittekin, zeñiekin?
Ez nitzake tranpan ibilliko.
Bizi izetera hiri batera juteketan, nora?
Donostian ikasi neuen, eta Arrasaten hobeto bizi naz.
Telebisiñoko programa bat?
La noche... con Fuentes y Cia gustetan jat.

“Azul de Rizos-en ez dogu txandarik hartzen; batzuk gurago daue holaxe egittie”

Eta irratikue?
Irratixen musikie entzuten dot.
Zertan gastauko zeuke dirue?
Biajetan.
Ze dala-eta Azul de Rizos?
Izena ez dogu geuk asmatu, pelukerixa hau frankizia bat da-eta. Mondraguekue Euskal Herrixen zabalketan dan marka horretako lelengo pelukerixie da.
Ze egitten dozue gehixen?
Ulie moztu, kolorie emun... Eta oin zelulitis tratamentuek be asko egitten dittugu.
Udaberrixen egonda, ulie moztu biherko dogu, ala?
Bai! Hori hillero egin biher dan gauzie da.


NIREBIDAIAHURA/ Urtzi Berasaluze

Kubara / 2001eko udan

Bidaia bat egiterakoan helburu bat baino gehiago izan ditzakegu: lekuak ezagutu, abenturak bizi izan, edo lasai asko egon, beste barik. Urtzi, Xabier, Ibai eta Gaizka helburu horrekin joan ziren Kubara: lasai asko egoteko eta, bide batez, zelan ez, Kuba ezagutzeko asmoarekin, hain zuzen. Uste baino gehiago kostatu zitzairen Kubara joateko lekua aurkitzea: “Kostatu zitzaigun Kubara joatea. Behin baino gehiagotan atzeratu ziguten bidaia, eta agentziakoak gaue-tan lanean geratzen ziren gure-tako lekua topatzeko. Gu geu ere han izaten ginen, aukeraren bat edo beste zegoen ikusten”.

Kostata baina azkenean joan ziren lau lagunak Kubara. Lehenengo egunak Habanan egin zituzten, Urtzik dioen moduan, Kubako giroan murgiltzen: “Lehenengo bi egunak hotelean egin genituen, lasai asko”. Hori bai, lehenengo parranda egiteko ez zuten denborarik galdu. Habanatik Varaderora joan ziren. Han, inguruak ikusteko asmoz, Suzuki deskapotagarri bat hartu zuten errentan: “Zegoen merkeena hartu genuen, eta argi geratu zen merkeena zela! Erregai-tanga goraino bete genuen, eta zerbitzугunetik irteerakoan hango jabea ulu baten hasi zitzaigun segika. Erregai-tanga zulatuta zegoen, eta gasolina galtzen gindoazen. Varaderon lasai asko egon ziren: lekuak ikusi, hondartzan egon, ondo jan...”

Varaderotik beherantz jo zuten, baina hurrengo egunak ez zituzten hoteletan egin, turistendako prestatuta dauden etxeetan egiten zuten lo. Astebete eman zuten horrela, eta azken egunak Cayo Cocon egin zituzten. Hango hotel baten zeukaten hartuta lekua, eta bidaia ezin hobeto amaitu zuten: hondartzan egon, urpekaritza egin, lasaitasuna, eguzkia... Horrelako bidaia bat askok eskertuko lukete, seguru!



“Kubara joateko lekua topatzea asko kostatu zitzaigun”

“Hainbat leku ikusi genuen, baina bidaia lasaia izan zen”

XABIER URZELAI



Xabier, Gaizka, Ibai eta Kuban egindako lagun bat.

euskaldunon
Egunkaria

-ri laguntzeko jendea behar da

aurrera!
Adierazpen Askatasuna

771228

TELEFONOARRAZTEA

(AED)

ARRASATEKO EGUNKARIAREN ALDEKO HERRI BATZORDEA

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Iturbide egoitzan bizi diren adinduez gain, beste asko etxean bizi dira, senitartekoeekin.

Etxean adinduak dituztenei laguntzeko, Sendian programa

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udala Sendian programan sartu da. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak sortu zuen eta poliki-poliki herri askotara hedatuz doa. Arrasatek ere baietza eman dio, eta hemendik aurrera herrian adinekoekin bizi diren senitartekoei zenbait laguntza jasoko dituzte.

Programa hori etxean adinekoak dituzten familiei zuzenduta dago. Gizartekintzak adineko pertsona bere familia ingurunean edukitzea bultzatu gura du, eta horretarako programa hori abian jarri zuen.

MOTA ASKOTAKO LAGUNTZAK

Sendian programaren finantzaketa guztia Gizartekintzaren eta bide batez, Aldundiaren esku dago. Udalak, oster, Gizarte Zerbitzuen lana eta ardura ipini beharko du. Gizarte Zerbitzuak honako lanak egin beharko ditu: familiekin harremanetan jarri; azterketa, balorazioa eta diag-

nostikoa egin; helburuak eta baliabideak zehaztu; espedientea Gizartekintzara bidali; eta kasu bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.

Hori egin eta gero, Sendia programak etxean adinduak dituztenei honako baliabideak eskainiko dizkie: adinduak hobeto zain-

tzen jakiteko prestakuntza ikastaroak; familian adinduak dituztenek laguntza taldeak eratzeko erraztasunak; zaintzaileendako laguntza psikologikoa; eta beste batzuk.

Horiez gain, familiartekoei edo zaindariak atsedean har dezaten, aste bukaeretan adindua Iturbide egoitzara eraman ahal izango dute. Bestalde, adinduak etxean egon gura badu, laguntzaileak etxera joango dira senitartekoei atsedean har dezaten.

Adinduak ezinduak direnean, familiak Gizartekintzari laguntza eskatu ahal izango dio, etxean beharrezkoak diren konponketak edo moldaketak egiteko.

Programa horrek laguntza ekonomikoak jasotzen ditu, baina laguntza horiek jasotzeko baldintzak ez dira edozelakoak. Udaleko Gizarte Zerbitzuko ardura-dunak jakinarazi digunez, laguntza ekonomiko horiek jasotzeko familia horren egoera ekonomikoak kaskarra izan behar du. Hau da, ezin du edozein familiak eskatu.

Senitartekoei babesa eman

Sendian izeneko programak ez du laguntza ekonomiko handirik eskaintzen. Hori behar-rean, adinduaren senide eta zaintzaile direnei laguntza eta babesa eskaini gura die. Azken baten, senitarteko horiek izugarritzko lana egiten dute eta Gizartekintzako programak senideei zelanbaiteko formazio eta babesa eman gura die.

LABUR

1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute apirilaren 12an

1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute apirilaren 12an. 13:00etan meza izango dute San Juan Bautista elizan. Gero bazkaria egingo dute Musakola Hostalean. Interesatuak apirilaren 5a baino lehenago eman behar dute izena. Hire liburu dendara edo Begoña lurrindegira jo beharko dute, eta 15 euro ordaindu.

Uribarriko elkarteak Gernika eta Bermeora txangora eta berbaldia antolatu ditu


Uribarriko erretiratuen elkarteak hainbat ekintza antolatzen dihardu aspaldian. Apirilaren 2an, eguaztenean, *Estresa eta horren ondorioak osasunean* izenburuko berbaldia egingo dute. Apirilaren 29rako, oster, Gernikara eta Bermeora txangora antolatu dute. Txangora joan gura izanez gero, ahal den lasterren eman beharko da izena, eta 19 euro ordaindu beharko dira.



Bermea eman zuten beteranoen omenaldia

Arrasateko Herri Gain elkarteak 25. urteurrena bete duela eta, hainbat ekitaldi antolatu zituzten joan den asteburuan. Esate baterako, Herri Gain elkartearen erosteko bermea jarri zuten lau bazkideak omendu egin zituzten. Honako hauek eman zuten bermea: Pablo Garai Peño-k, Enrike Landaluzek eta Jose Maria Gallastegik (Jose Mari hilda dagoenez, ekitaldian Anton Gallastegi semeak hartu zuen parte). Besteak beste, hildako bazkideen aldeko meza egin zuten eta bermea ordaindu zuten lagunei omenaldia egin zieten. /A.B.

PUB HAIZEA



HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



ARRASATE
Alaitz Martínez
Martxoaren 19an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.




ARRASATE
Juan Kruz Zabala
Martxoaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak! Jarraitu beti bezain gazte. Familiakoak.




ARRASATE
Chantal Romeo
Martxoaren 29an, 13 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Haritz Gallastegi
Apirilaren 2an, 4 urte. Zorionak! Aitaita, amama eta osaba lñigo.



ARRASATE
Maria Bergaretxe
Martxoaren 23an, 63 urte.
Zorionak! Lagunen eta familiakoan partetik.



ARRASATE
Xabier Vallina
Martxoaren 30ean, 14 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.




ARAMAIO
Jone Arriolabengoa
Martxoaren 29an, 15 urte.
Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Markel.



ARRASATE
Ana Martiarena
Martxoaren 30ean, 44 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.




ARRASATE
Ane Otxandiano
Martxoaren 28an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Amadeo Ezpeleta
Martxoaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Iloba guztien partetik.



ARRASATE
Leire Etxebarria
Martxoaren 31n, 20 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Miren Larrañaga
Apirilaren 2an, 21 urte.
Zorionak! Tres Cantosko amonaren partetik.




ARAMAIO
Jon Agirre
Martxoaren 8an, 61 urte.
Zorionak! Segi, Etxerat, Askatasuna eta etxeokak.



ARRASATE
Nekane Kerexeta
Apirilaren 1ean, 85 urte.
Zorionak! Iloben partetik.



ARRASATE
Eider Bolinaga
Martxoaren 17an, 29 urte.
Zorionak, *golfa!*



ARRASATE
Eneko Canelo
Martxoaren 27an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Ilu García
Martxoaren 31n, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Iñaki Barrena
Martxoaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, etxeokan partetik.



ARRASATE
Aizkora
Aizkora: Udaleko perrexila. Martxoaren 27an urtebetetzea. Departamentukoak.



ARRASATE
Aimar Arrieta
Martxoaren 28an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Amaia Uribarren
Martxoaren 30ean, 14 urte.
Zorionak, guapetona! Iñigo, Ander eta Aritzen partetik.



ARRASATE
Tania Álvarez
Martxoaren 31n, 11 urte.
Zorionak! Familiakoak.

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitzazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



Zelan deitzen da argazkiko kale-kantoia?
Arrastoa: herriko alde zaharrean dago.

IKER BARANDIARAN



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Don Simon ardoa
Litroko brika

0,93€ 155 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IÑAKI LEGUINArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iñaki!
Galderen erantzun zuzena:
Lamina baten eskultura.

ARRASATEKO HISTORIA

Bedoñako elizatea:
Santa Eulalia

JON ANDER RAMOS

Ez dago datu historiko askorik. Baina jakin badakigu 1966ra arte Aretxabaleakoa izan zela. Arkitekturen dagokionez, badirudi antzinako gaztelu edo dorretxe baten gainean eraikita dagoela; aztarnak (hormak, gezi-leihoak...) eta muino baten gainean eraikita egoteak holako zerbait adierazten dute.

Ezaugarri erromanikoak ditu; hori bai, esan beharra dago Gipuzkoako erromanikoaren kronologia (XIII-XIV. mendeak) ez datorrela bat beste lurralde batzuetako erromanikoaren kronologiarekin (XI-XII. mendeak). Santa Eulaliaren kasuan, erromanikotzat hartzen diren hiru leiho kontserbatzen dira:

1: Goiko aldean erdi puntuko arkuak duten bi arkibolta daude, herri dekorazio ikonografikoa duten lau kapitalez osatuta: aurrez aurre ipinitako abereak (zaldia, akaso), ongia eta gaizkia irudikatuz. Kopa batetik edaten dauden bi hegazti (bizitzaren iturria irudikatzen duen kopak Eukaristiaren bitartez Graziaren lorpena adierazi gura du); haien goiko

Badirudi antzinako gaztelu edo dorretxe baten gainean eraikita dagoela Santa Eulalia

Ezaugarri erromanikoak ditu; besteak beste, hiru leiho kontserbatzen dira

aldean landarea eta aurpegia azpimarratzen dira (ahotik landarea botatzen duen aurpegi horrek bekatuen kanporatzea irudikatzen du). Eskumako aldean landare antzeko aurpegia dago, hirugarren kapitolean. Eta giza gorputz osoa ageri da eskumarengo kapitolean, laugarrenean, alegia.

2: Beheko aldeko leihoa. Adintelatuta dago eta abereen



ARRASATE GURE HERRIA

Erromaniko garaiko aztarnak ditu Bedoña auzoko Santa Eulalia elizak.

ikonografia dute kapitelen.

3: Inguruko etxe baten barruko aldean erdi puntuko beste arku bat dago, arkibolta bakarrarekin. Arku horrek ere kapitelen apainduta dauzka.

Baina, etxearen barruko aldean dagoenez, ez da ikusten.

Bestalde, azpimarratzekoa da gangaren eraketa, haren nerbioak egurrezkoak dira-eta. Era berean, elizaren barruko

aldean erromaniko garaiko bataio-pontea ikusten da.

Eta aipatzekoa da, era berean, elizaren aterpean gainerako elizetan existitzen ez den hamarren kutxa dagoela.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko martxoaren 28a / 59. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxe: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Martxoari dagokion osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak eguaztenean

UBANE MADERA

Eguaztenean osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak. Besteak beste, kontu-hartzaile berriaren gaia, 36ko gerran fusilatutakoen gaineko mozioa, zenbait dirulaguntza eskatzea eta sahararrak Aramaiora ekartzeko proposamena aztertu zituen.

Kontu-hartzaile berria hartzeko prozedura bukatu dela-eta, kontu-hartzailea izendatu zutela jakinarazi zioten udalbatzarrari. Eman-dako informazioaren arabera, 40 laguneren artean aukeratu dute, eta datorren apirilean hasiko da lanean, gaur egun dagoen kontu-hartzailearekin batera. Hilabete egingo du horrela, eta maiatzetik aurrera hura bakarrik geratuko da.

Horrez gainera, 1936ko kolpe militarrean fusilatutako herritarren aitortza eta ordain moralaren alde izenburua duen mozioa aurkeztu zuten. Besteak beste, hilketan horien bidegabekeria aitortzen du mozioak; belaualdi berriei gertatutakoaren berri emateko eskatzen du; fusilatutakoen omenez egin gura duten monolitoari



Abere-ustiapenekin lotutako etxebizitzak eraikitzeko baldintzen ordenantza eztabaidatu zuen udalbatzarrak.

onespena ematen dio; baita ekainaren 8an Arrasaten egin gura duten omenaldiari ere; gorpuak berreskuratzeko babesa eskain-

tzen du; Elizak eta botere judizialak heriotzen benetako zergatia aitortzea eskatzen du; eta guztioen alde egingo diren ekimenak

Udalak diruz laguntzea.

SAHARARRAK EKARTZEKO

Bestalde, udan sahararrak Euskal

1936an fusilatutako herritarren aitortza eta ordain moralaren aldeko mozioa landu zuten

Herrira ekartzeko ekimena abiaraziko dutela jakinarazi zioten udalbatzarrari. Hala, ekimen horren barruan, Aramaiora ekartzeko aukera dago, gura duen errendako. Hortaz, osoko bilkura proposamena onartzen badu eta norbaitek interesa badu, udal-txera jo beharko du. Era berean, abere-ustiapenekin lotutako etxebizitzak eraikitzeko baldintzen ordenantza eztabaidatu zuten. Aramaioko Udalak Debagoieneko Mankomunitatearekin batera Lurralde Zatik Planari aurkeztuko dizkion alegazioen berri eman zuten. Eta zenbait dirulaguntza eskatzea aztertu zuten.

Edozelan ere, albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoenez, ez dakigu zer onartu duten zinegotziek.

Ikaspilotaren laugarren aldia egin zuten barikuan Legutianon

San Martin Eskolako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak Legutianon egon ziren joan den barikuan. Ikastolen Federazioak abiarazitako Ikaspilota ekimenean parte hartu zuten, laugarren urtez.

Ekimen horren izenak esaten duen moduan, pilotaren eza-gutza bultzatzea da helburua.

PARTIDU ETA GUZTI

Pilotaren gaineko txokoetan ibili ziren umeak. Guztira sei txoko izan zituzten: esku-pilota, zesta-punta, pala... Guztiak probatzeko aukera izan zuten San Martin Eskolakoek, Legutianoko eta Izarrako eskoletako ikasleekin batera. Hala adierazi digu Alex Zubiak,

San Martin Eskolako gimnasiako irakasleak.

Ikaspilotaren ekimena amaitzeko, hainbat pilotari ezagunek partidua jokatu zuten, umeek ikus zezaten. Imanol Agirrek eta Compak Edu Baltategiren eta Mikel Rafaelen kontra jokatu zuten, 18 tantora. Agirre eta Compak izan ziren nagusi: 18-16. Umeek kiniela egin zuten, bikote bien artean zein nagusitu. Eta kiniela asmatu zutenei oparitxo eman zieten.

Alex Zubiaren esanetan, umeak oso gustura eta oso pozik ibili ziren Ikaspilotan.

Ikaspilotaren ekimena txandaka egiten dute: Legutianon baten, Izarran hurrengo eta, jaki-

na, baita Aramaion ere.

BERTSOGINTZAN

Horrez gainera, arratsaldean bertsolaritza izan zen nagusi Legutianoko kultura etxean. Euskara bultzatzeko Nolega izeneko egitasmoaren barruan, bertsotan ibili ziren gaztetxoak. Izan ere, Nolegaren bitartez, ikasturte barruan bertsolaritza lantzen dabilta San Martin Eskolakoak, Manex Agirrerren laguntzarekin. Legutianokoek gauza bera egiten dute Oihane Perea bertsolariarekin.

Horrela, barikuan, bi eskoletako ikasleak bertsoak kantatzen ibili ziren; nork bere ikastetxean egindako ekintzak besteari erakusteko.



Bertsotan eta pilotan ibili ziren ikasleak barikuan Legutianon.

SAN MARTIN ESKOLA

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Amasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Askotariko emaitzak ditugu oraingo astean. Gazte mailakoek 4-6 galdu zuten Oriamendiren kontra; kadete mailako mutilek, berriz, 16-0 irabazi zioten Jesus Obrerori; eta neskek, azkenik, 5-5 egin zuten Atletiko Santa Mariaren kontra. Bihar, zapatua, honako partidua ditzute: gazteek Aramaion jokatu dute, 10:45ean, El Pilar Marianistaren kontra; kadeteek CD Aurreraren kontra jokatu dute, Gasteizko Europa kiroldegian, 11:00etan; neskek ere Gasteizen dute hitzordua, Ekialderen kontra, 10:30ean, Ekialde kiroldegian.

ZINEMA

Asterix y Obelix, misión Cleopatra emango dute.

PALETA TXAPELKETA

Zapatuko partiduen ostean, Pérez-Urra bikotea finalerako sailkatu zen eta Garaíta eta Flores 35-14 gailendu zitzairen Arriolabengoa I.ari eta Azurmendiri; hortaz, hirugarren partidua jokatu beharko dute, zein sailkatzzen den jakiteko. Partidua bihar da, 09:00etan.

San Martin Eskolakoek Arragan ospatu dute aurten Zuhaitz Eguna

TXIRRITOLA

Kurtzetan barik, Arragan sartu dituzte zuhaitzak aurtengo Zuhaitz Egunean. Guztira 40-50 zuhaitz sartu zituzten Arangioko magalean; hain justu ere, pagoak, haginak eta urkiak landatu zituzten eguazten goizean San Martin Eskolako neska-mutikoek.



GORIKA ETXABE

Goizean goiz autobusean sartu eta Arragako txabolarako bidea hartu zuten San Martin Eskolako hirugarren mailatik gorako ikasleek; eta han, Jon Ugarte mendi ingeniariaren gidaritzapean, 40-50 zuhaitz sartu zituzten: pagoak, haginak eta urkiak, hain zuzen ere. Horrela ospatu dute aurtengo Zuhaitz Eguna; eta, besteak beste, basoak biziberritzeak duen garrantzia ikasi dute.

Horrez gainera, arratsaldean birziklapenarekin lotutako lan-tegiak izan zituzten ikasleek.

Esan beharra dago azken bi urteotan 60 hektarea baso berri-tu duela Udalak Aramaioko mendietan.

Pagoak, haginak eta urkiak sartu zituzten Arangioko magalean.

GERRAREN KONTRA

Bestalde, eskolatik alde egin barik, esan beharra dago martitzenean

bat egin zutela Irakeko eraso gaitzesteko deituta zegoen ordubete-ko geldidunarekin. Horrekin bate-

ra, ikasleek erasoarekin lotutako marrazkiak egin eta eskolako hormetan ipini zituzten.

BOTEPRONTOAN/ Zuriñe Zabala Urtaran · Zuiako Koadrilako teknikaria

“Gaur egungo helburu nagusia da kultura eta kirol programak auzoetara gerturatzea”

Gopegiraino joan gara orain-go astean, Zuriñerekin berba egitera. Orain dela 10 urte ezkerro Zuiako Koadrilako kide da, eta kulturarekin eta kirolarekin lotutako ekimenekin arduratzen da. Hori dela eta, eguazten-ero Aramaioa etortzen da. Baina, horrez gain, Zigoitian, Urkabustaizen eta Arratzu-Ubarrundian ere ibiltzen da. Izatez Larrasketakoa da Zuriñe, nahiz eta gaur egun Bitorianon bizi den:

Zehatz-mehatz zein da zure lana?
Kultura eta kirol jardueraz arduratzen naiz, hiru mailatan: koadrila mailako programa (emakumeen topaketak, umeen Euskararen Eguna...); udalerritan egiteko programa (dirulaguntzak lortzeko eskaerak, gizarte gaiak...); eta elkarteekin lan egiteko programa (suspertze-ko; batez ere, aholkularitza lanak betetzen ditut...).

Udalerrietako programan, Aramaion zer egiten duzue?
Aspalditik gabiltza musika irakaskuntza bultzatzen. Aramaioar batzuk Arrasate Musikalera joaten dira eta beste batzuk hemen daude, trikitia... ikasten. Ikasten dabilzanendako dirulaguntzak lortzen ditugu. Zuhaitz Eguna antolatzen laguntzen dugu, San Martin



Eguna, Erretiratuen Eguna... Udalak antolatzen ditu, eta nik lagundu egiten diet, teknikari gisa. Eta bestelako gauzetan ere ibiltzen naiz: Vital Kutzarekin folklore festibala antolatzen... Baita kultura etxeko teknikariekin lankidetzan ere: Gabonetan, Aratusteetan... Eta elkarteekin harreman handia dut: hirugarren adinekoekin, Oletako elkartearekin... Are gehiago, Oletara bertara joaten naiz behar dutenean. Eta auzoei laguntza emateko gertu nago.

Koadrilaren gainean, zeintzuk dira ezaugarri nagusiak?
Zazpi udalerririk osatzen dute: Duranak, Ibarrak, Izarrak, Gopegik, Legutianok, Murgiak eta Aramaiok. Oso eremu handia da, baina ez da Arabako handiena. Ni hasi nintzen sasoiari hasi ziren zerbitzuak ematen: bake epaitegia, aholku-

laritza juridikoa eta ekonomikoa. Egun, horiez gain, gerentea, artxibozaina, arkitektoa, aparejadorea, administraria eta turismoa eta enplegua bultzatzeko teknikaria ere badaude. Guztiak koadrilako herrietara joaten dira, beharra dagoenean. Koadrilaren egoitza Murgian dago, Zuian. Koadrilak batzorde bat du, udalerrri bakoitzeko ordezkariekin osatuta. Urtean osoko bilkura bi egiten dituzte.

Zeintzuk dira konpetentziak?
Zuzen-zuzenean koadrilako herrietako zaborra batzea (Aramaion eta Duranan kenduta) eta elurra errepideetatik kentzea. Bestela, nik bezala, teknikari lanak egiten ditugu.

Zure lana dela-eta, hemengo eskaeren berri izango duzu?
Orain arte azpiegiturak eta kultura bultzatzea falta zen. Aramaion asko hobetu dute bietan; orain pribilegiatua da. Kirol arloan igerilekuak eskatzen dabilta... Eta auzotarrak Ibarra etortzeko arazoak daude: ez dago garraiorik... **Zeintzuk dira gaur egungo helburu nagusiak?**
Batez ere, kultura edo kirol programak auzoetara gerturatzea, Ibarra geratu barik. Eta egun zehatzetan barik, hileroko zerbait egin garako nuke.

“Kultura eta kirol jardueraz arduratzen naiz, teknikari lanak egiten ditut”

“Egungo helburu nagusia kultura eta kirol programak auzoetara gerturatzea da”

ERRETRATUZAHARRA

Ederlan eraikitzeko
lurra bedeinkatzen

Comet Industriak-Esteibar Galdaketak izeneko txostenaren bitartez indartu zen Ularco Taldearen enpresa-plan osoa. 1963ko otsailean aurkeztu zioten txostena Euskadiko Kutxako Errektore Kontseiluari. Uzailean Batzorde Eratzailea sortu zen, eta 1963ko urriaren 10ean Estatu-ko Buletinean publikatu zuten. Horrela sortu zen Comet SCI, gaur egungo Ederlan Kooperatiba, hain zuzen. Nahiz eta Euskadiko Kutxarekin sinatutako kontratuan 1964ko martxoaren 2a agertzen den.

Ederlanek hasieratik zuten galdaketan jarduteko asmoa. Hain zuzen ere, burdina hondar bihurtzeko galdaketa lantzeko produkzio mekanizatu egin gura zuten, bestelako

injekzio programekin batera. Hori guztiori egin ahal izateko leku handia behar zuten lantegiak, eta kontu handiz aukeratu zuten eraikitzeko lekua. Besteak beste, Deba ibaia desbideratu egin zuten, lekua hobeto aprobetxatzeko, eta zenbait errepide txiki eraiki zituzten. Edateko ura Eskoriatzatik ekarri zuten, eta lantegirako ura Deba ibaitik hartu zuten. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Javier Zubizarreta, Aita Migel Lete eta Migel Arenaza. 1963ko ekaina zen. Ikusten denez, Ederlan eraiki behar zuteneko lursaila bedeinkatzen dabilta.

Argazkia eta informazioa:

Orígenes y claves del cooperativismo de Mondragón liburua

Urtea: 1963



NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Biteri Eskola
eta egungo
aparkalekuak

Argazki zaharra Valeriano Martínezek ateratakoa da, 1950. urte inguruan. Biteri Eskolako beste argazki batzuk erakutsi izan ditugu, eta oraindik ere baditugu eskola horren gaineko argazki zaharrak. Eskola zegoen lekuan gaur egun aparkalekuak daude, eta urte gutxi barru lur azpiko aparkalekuak egingo dituzte. Biteri kalea oinezkoendako izango da.



≈ 1950

Valerianok argazkia atera zuenetik hona Biteri kalea asko aldatu da. Eta datozen urteotan ere dezente aldatuko da.



2003

Helburua ez da erraza: herria oinezkoendako egokitzea, baina autoek ere lekua izatea. Lan esker-ga egin beharko da horretarako.



Gambrinus
garagardotegia

¥ Menua:

bazkariak eta afariak

¥ Karta

¥ Errazioak

¥ Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Mobiliario
ARENAZA

¥ALTZARIAK

¥ DISEINUA

¥APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.

Tel.: 943-71 21 41

Faxa: 943 - 71 21 40



BASATI

TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711767

HERRI ANITZA PLATAFORMAK MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEETARA AURKEZTEKO ASMOA DU.

Horretarako **SINADURA BILKETA** bat burutu behar dugu.

ZURE SINADURA BEHAR DUGU!!!

NON: Arrasateko Udaletxeko Idazkaritzan (lehengo solairuan).

NOIZ: Apirilak 2-16 (biak barne).

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera.

Goizez: 11:00-13:30

Arratsaldez: 17:00-20:00

Larunbatetan.

Goizez: 10:00-14:00

ZER ERAMAN: N.A.N-a edo pasaportea.

BETEBEHARRAK: 18 urte beteta edukitzea.

Arrasaten erroldatua egotea.

EZ ITXARON AZKEN MOMENTURARTE. ETORRI LEHENBAILEHEN!!!



“Bezeroari ahalik eta denbora luzeen eskaintzen saiatzen gara”

Badira hogeita hiru urte Ferrerías kalean Ilea ile apaindegia zabaldu zutela. Sasoi hartan, herrian zeuden ile apaindegi guztiak gizonezkoenak edo emakumezkoenak ziren. Ilea aurrerapausoa egin zuen eta aitzindaria izan zen herrian: “Kolore gogorrek eta intentsuak sartzen hasi ginen; izan ere, orduan punka modan zegoen. Arrasatearrek sormena, kolorea, gauza berriak gura zituzten. Horrez gain, ile apaintzaileek bezero bakoitzera egokitu beharra daukate, eta guri berdin digu gizonezkoa edo emakumezkoa izan; azken baten, pertsona bakoitzera egokitu beharra daukagu”, esan digu Joseba Barandiaranek, Ilea arduradunak.

Ilea zabaldu zutenetik urte asko pasatu dira eta moda asko aldatu da orduetik hona. “Joerak sinusoidalak dira, baina garai bakoitzean zehaztasun bereziak izaten dituzte”, azaldu digu Joseba Barandiaranek.

MOTA GUZTIETAKO BEZEROAK, GUSTURA

Ilea ile apaindegia berritzailea eta abangoardista da, eta ilea mozteko eta apaintzeko dauden teknika guztiak erabiltzen dituzte: labana, artaziak, entresaka, bizarra mozteko makina... Eta era guztietako bezeroak dituzte: “Gizonezkoek eta emakumezkoek dagokienez, erdi eta erdi izango dira, baina daukagun bezero talde mota oso zabala da: hilabeteak dituzten umeak, mutiko eta neskatilak, gazteak, adin ertainekoak, erretiratuak...”.

Ileara ilea apaintzera joaten diren bezero gehienek badakite zer gura duten, gauza konkretuak gura dituzte eta hala jakinarazten diete ile apaintzaileei. Hala ere, bezeroek gura badute Ilean aholkuak ematen dizkiete: “Bezeroari begirada orokorra egiten diogu: zelan janzten den, daukan altuera, begien kolorea, aurpegiaren for-



Lantalde polita osatzen dute Maribelek, Manuk, Cristinak eta Soniak.

ma... Horrek guztiak esaten digu klasiko den edo berritzailea den zerbait gura duen, eta zer geratuko zaion ondoen. Bezeroak aholkua eskatuz gero, gu proposamenak emateko gertu egoten gara beti”.

Ilea bi lagunekin hasi zen eta gaur egun zazpi lagunek egiten dute lan: Izaskun, Andoni, Kontxi, Enar, Inma, Iratxe eta Josebak. Langile bakoitzak denetik egiten du, eta hori oso aberasgarria da negozioren onurarako, baita langileendako euren dako ere. Horren harira, langile asko dira eta bakoitzak ikuspuntu edo joera propioa

dauka. Bezeroek aukera zabala ikusten dute eta askok hori nabarmetzen dute Ilea ile apaindegia aukeratzekoan.

KOLOREA DA ILEAREN ADIERAZGARRIETAKO BAT

Ilea ile apaindegiko arduradun Joseba Barandiaranek azaldutakoaren arabera, Arrasateko jendea aldaketak egiteko ausarta da. Horrekin lotuta, gaur egun, ile apaintzaileen lanak, koloreak erabiliz eta mozketaekin esperimentatuz, oso aukera zabala eskaintzen ditu.

Joseba Barandiaranen esanetan, Ilea-

ren espezialitatea da lanak ahalik eta ondoen egiten ahalegintzea, eta, era berean, bezeroari ahalik eta denbora luzeen eskaintzea. Horretan datza Ilearen espezialitatea, profesionalak izatean, alegia.

Ileakoek udaberrirako kolore naturalak (marroiak...) aurreikusi dituzte, erreflexuekin eta xerloekin. Horiek dira orokorrean dauden joerak.

Ilea mozteaz eta apaintzeaz gainera, masajea, depilazioak, manikura, ilearen tratamendua eta bestelakoak ere egiten dituzte Ilea ile apaindegian.

Edertasun Gida

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Lore

Olarte 10 ARRASATE 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

I LEA

Ferrerías 14. 943 79 87 62

BITXORI
Ile apaindegia

Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora